

Itziar Ituño Espaloian

'Pakitarentzat bakarrik' egin zuen

KULTURA, 24



Preferenteko hiru taldeak garaile

Bina gol egin zituzten: Mondrak etxean; UDAk eta Aloñak kanpoan

KIROLA, 14-15

Señor No taldea

Zapatuan Arrasaten izan ziren

KULTURA, 22-23



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2005eko urriaren 31 • 2. urtea • 76. zenbakia • 0,90 euro

ELKARRIZKETA



MARIANO FERRER |
18/98 + PLATAFORMAKO KIDEA
ETA KAIERAREN BULTZATZAILEA

"Gizarte osoaren erabakitze autonomi- eskubidea da jokoan dagoena"

"Naizena baino erretiratuagoa izan nahiko nuke; inertiagatik oraindik mugidan egotea normala da"

"18/98+ kaierak, eta Plataformak berak, alerta ahotsa izatea nahi du"

"Mugida politikoa lideratzen duen abangoardiako proiektu legez agorturik dago ETA"

GEUREAN, 4-5



AITOR LIZARRALDE

ZUBIRAKO TURISMO BULEGOEN ESKAINTZA BEREZIA

Domu Santuko zubia dela nabaria da ibarrean. Hainbat bisitari izan ditugu egunotan (irudian bisitariak atzo, Oñati-ko parrokiako kriptan) eta beste hainbat ere izango ditugu gaur eta bihar bitartean. Hori kontuan izanda, ibarreko turismo bulegoek eskaintza bereziak antolatu dituzte: ordutegi bereziak eta bisita gidatu gehiago, esaterako. 9

Urbano zerbitzu berezia Domu Santurako

Zerbitzu hori Arrasaten izango da, gaur eta bihar, San Kristobal hilerrira joateko. Gorostizatik irtengo da eta ohiko geldiuñetan geratuko da. Bergaran, berriz, ohi baino denbora gehiagoz egongo da zabalik hilerria. 9

Bide Eginez eztabaida prozesuko batzarrak

Debagoienean hasia da Batasuna Bide eginez eztabaida prozesuarekin. Lehenengo batzarra honako herrietan egingo dute asteon: Arrasaten, azaroaren 2an; Aretxabaletan, 3an; Antzuolan, 5ean eta Elgetan, 10ean. 11

Debagoieneko I. Spinning maratoia

Azaroaren 12an izango da, Bergaran eta izenematea zabalik dago 11

Herriko zein kanpoko 30 saltoki Aramaioko azokan

Erretiratuen Egunaren harira egiten duten feria antolatzen herriko talde eta elkarteak aritu ziren 2-3



AITOR LIZARRALDE

GEUREAN

- Hiru egunetan ikasketa metodo berrien ebaluaketaz jardun dute MUK antolatutako mintegian | 6
- Debagoieneko hiru ekoizle izango dira gaur, astelehena, Gernikako azokan | 10

Mankomunitateak zortzi milioi eta erdiko aurrekontua onartu zuen egunean | 9

ARAMAIOKO ERRETIRATUEN EGUNA



AITOR LIZARRALDE

Kanpotik etorritakoekin eta Aramaio bertako saltokiekin, guztira 30 postu ipini zituzten Erretiratuen Azokan.

AZOKA | HERRIKO ERRETIRATUAK OMENDU ETA AZOKA EGIN ZUTEN ZAPATUAN

Aramaioko erretiratuek merezitako omenaldia jaso zuten zapatuan

Herriko talde eta elkarteek lagunduta Erretiratuen Eguna egin zuten zapatuan Aramaion. Gazte zein nagusiek, erretiratuak goratzeaz gain, azoka egin zuten Ibarrran

Jon Berezibar

Omendu eta protagonistak herriko nagusiak izan baziren ere, adin guztietako aramaioarrek egin zituzten ahaleginak zapatuan Erretiratuen Eguna bikaina antolatzeko. Trikiti eskolako neska-mutikoetatik hasi eta herriko elkarteetako kideetaraino, guztiek hartu zuten parte bai azokan eta baita omenaldian ere. Izan ere, herritarren esku-hartzea susta-

tzea ere bada ospakizun honen helburuetako bat eta herritar askok eman zuen laguntza.

Beste helburuetako bat, herriko produktuak bultzatzea izan zen. Horregatik, Aramaio bertako baserritar eta artisauak saltokiak ipini zituzten, guztira 15. Azoka, baina, urteekin hazten joan da eta Aramaioko produktuez gain, kanpotik ekarritako saltoki asko ere egon ziren Erretiratuen Azokan.

ASKO IKUSTEKO

Guztira 30 bat saltoki ipini zituzten. Besteak beste, Jose Lonbidek ortuko produktu ekologikoen postua ipini zuen eta Iker Ezpeleta eta Rakel Arriolabengoak etxean egindako ogiarena. Gaztaz, Kerixara eta Undakoak arduratu ziren eta eztiak Aldeko eta Gardoki. Aramaion ere artisauak badaude, Jesus Mari Elejalde esate baterako, egurra lantzen ibili zena. Hauek guztiekin batera Mendixola eta Itur Zuri elkarteek ere ipini zituzten saltokiak.

Erretiratuen egunean, gainera, haur eta gazteek makina bat egiteko izan zituzten. Izan ere, San Martin eskolakoez gozoak saldu zituzten eta batutako dirua Gobernuaz Kanpoko Erakunde bati emango diote. Bukatzeko, zapatukoaren moduko azoka baten ez

zen talorik falta. Horretaz Aramaio Tropikaleko Gazte Asanblada arduratu zen eta sortutako ilarak ikusita, posturik arrakastatsuenetakoa izan zen gazteena.

San Martingo haurrek eta Gaztetxeek ere lagundu zuten

Aramaioko bertako zein kanpoko, 30 saltoki ipini zituzten guztira zapatuko azokan

Herriko elkarteek ere euren begirunea erakutsi zieten erretiratuei eta Lizarra eta Zubiondo elkarteek, Ehizatarien txokoarekin batera, txorizoa jan eta salda hartzera gonbidatu zituzten.

BAZKARIA ETA OMENALDIA

Eguerdian, San Martin elizan euren aldeko meza entzun eta gero, Lagun Artean dantza taldekoek saio berezia eskaini zieten erretiratuei. Urtero moduan, bazkaria egin zuten kiroldegian eta arratsaldeko dantzaldiarekin amaitu zituzten ospakizunak. Aurten gainera, Ana Mari Jauregi eta Fidel Beitiari omenaldi berezia egin diete, herriko nagusienak izatearren. Bazkari-ko erretiratu guztien artean Benidormera bidaiara zozkatu zuten, Udalaren oparia hauxe.

ARAMAIOKO ERRETIRATUEN EGUNA

• ARAMAIOAR GUZTIAK ERRETIRATUEKIN BAT EGINDA



ARAMAIOKO 'LABELA'. Hasiera baten, herriko baserritar eta nekazarien produktuak bultzatzeko egiten zuten Erretiratuen azoka. Hori lehen urteetan izan zen, gaur egun kanpotik etorritako artisau eta nekazariak ere parte hartzen dute. Aramaioko 15ek ipini zuten saltokia, horien artean ziren argazkiko Kerixararik ekarritako gaztak. Horietaz gain, besteak beste, ogia, ortuariak, ezta, produktu ekologikoak eta pastel nahiz gozokiak ipini zituzten salgai Aramaiokoek bertakoek Erretiratuen azokan.



KLUNKA ETA KLUNKA. Janari eta produktuez gain, hainbat artisau egon ziren azokan euren langintza bertatik bertara erakusten. Aurtengoan Eibarko Su Oker taldekoak izan dira artisau gonbidatuak. Errementariak dira eibartarrak eta aurreko urteetan ere etorri izan dira Aramaiora. Sutegia isiotuta izan zuten lanabes eta apaingarriak zelan egiten dituzten erakusteko. Errementariez gain, zurginak eta jostailugileak ere egon ziren artisautza saltokietan.



ASANBLADA TROPIKALA TALOGINTZAN. Gosetuta ibili ziren aramaioarrak, antza, zapatu eguerdian, gazteen postuan sortutako ilarak ikusita. Ikusitakoak ikusita, arrakasta itzela izan zuen argazkiko saltokiak. Izan ere, Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanbladakoek ere euren ekarpena egin zuten azokan, taloak egiten. Aukeran, txorizoarekin, gaztarekin, biak batera edo hutsak. Goiz guztian eta eguerdian ere, ez zioten utzi herriko gazteek talo eta pintxo tropikalak banatzeari.



SALDA ETA TXORIZOA, ELKARTEEN KONTURA. Herritarren esku-hartzea oso garrantzitsua izaten da. Hori dela-eta, Aramaioko talde askok erretiratuendako oparia izan zuten. Elkarteetan, esaterako, salda eta hamaiketakoak doan eman zieten gerturatu ziren erretiratuei. Lan honetan ibili ziren Zubiondo eta Lizarra elkarteak eta Ehiztarien Txokoa. Eguerdi partean, trikitilarien laguntzarekin elkarteetan hartu ahal izan zituzten txikitoak giro ederrean.

• EGUNAK AURRERA EGIN AHALA ANIMATU ZIREN ERRETIRATUAK



MARTIN, ANTON ETA PAKO |
ARAMAIO

Gosetuta harrapatu genuen hirukotea: “Meza entzun eta gero bazkariaren zain gaude, hor pasatzen dugu-eta ondoen. Giro oso polita izaten da bertan, nahiz eta hasieran denok isil isilik egon, poliki-poliki animatzen hasten gara ardotxoarekin eta aurtengoan ere askok dantzaz amaituko dugu, giro eder askoan”.



LORENZA ETA MATILDE |
ARAMAIO

“Eskerrak eguraldi onari. Aurten ere ederto ibiliko gara alde bate-tik bestera, oso pozik. Benetan egun polita da gaurkoa, erretiratuoi eskaintzen zaiguna. Bazkariak gain kaleko azoka gustatzen zaigu, oso giro ona egoten da-eta. Meza entzun eta gero osteratxo bat egingo dugu saltokiak-eta ikusteko”.

LAN ESKAINTZA

Bergarako Musika Eskolan,
IDAZKARIA
behar da.

Eskatzen da:

- Administrari ikasketak izatea
- EGA edo antzeko maila izatea

Eskaintzen da:

- Egun erdiko lana astelehenetik ostiralera 16:00etatik 20:00etara

Interesatuok bidali curriculumak:
Bergarako Musika Eskola
Espoloia z/g 20570 Bergara

Kaiera 18/98+ ekimena Debagoienean izan da asteon; eguaztenean, Elgetan eta Bergaran eta eguenean, Arrasaten. Mariano Ferrer Herri Irratiko kazetari ohia

18/98+ Plataformako kide da eta Bergaran izan zen Kaieraren berri ematen bai eta Bergarako eta Antzuolako erretiratuen elkarteak antolatutako hitzaldi baten parte

hartzen. Kaierarekin lortu nahi dutenaz eta 18/98+ sumarioaz jardun dugu Ferrerrekin. 1997a ezker datorren prozesu judizialaren erabat kontra dago *esatari handia*.

MARIANO FERRER | 18/98+ PLATAFORMAKO KIDEA

"Gizarte osoaren erabakitzeke autonomia-eskubidea dago jokoan"

Marijo Deogracias

Zertara dator Kaiera? Eta zein da haren helburua?

Helburua gureta, eta espero dut gizartearendako, oso argia da. 1997a ezker dator kigu inpulso politikoaren abusua dakarren eta politika jakin bati laguntza datorren sumario multzo erraldoia; hau da, terrorismoaren aitzakiaz, euskal ezker abertzalearen zati bat horma kontra jartzera datorren politika. Horren denbora luzea da horretan hasi zirela, jendea ohitu ere egin da mehatxu horrekin bizi izatera. Baina sumario horrek badaezpadazko espetxeratze oso luzeak ekarri ditu, enpresen eta hedabideen ixtea... Eta ahozko epaiketa iristen denean—lehen Haika, SEGI eta Jarrairanak izan ziren—, euskal biztanle askoren espetxeratzea ekar dezake, talde terroristaren kide legez. Hori guztia Garzonek ezarritako tesi politiko batetik eratorri da, ETA ez dela bakarrik ordura arte zena, baizik eta, nola edo hala, ETArekin finekin bat datorren edo zer ere ETA dela esaten duen tesia da; eta hortaz, horrela epaitu behar dena. Baina ETArekin zerikusirik ez duten eta euren errugabetasuna erakutsi beharra daukaten pertsona eta enpresak sartzen dira hor. Hori oso larria da; larria da gertatzea eta larria da gizarte ez ohartzea ez direla bakarrik inputatuenak inplikaturik dauden eskubideak baizik eta gizarte osoaren erabakitzeke autonomia-eskubidea dagoela jokoan, kartzelara joateko arriskuarekin. Hori salatzea da Kaieraren helburua.

Eta zer dakarkio Mariano Ferrerrek Kaierari?

Inputatu bako bat gehiago naiz. 18/98+ Plataforman inpu-

tutatuko eta ez inputatutako pertsonak gaude, egoera horrek dakarren zailtasunaz ohartzeko. Oso larria den ekintza bategatik inputatuta dauden pertsona batzuk daude eta beste batzuk, inputatua ez egon arren, mehatxatuta sentitzen garen pertsonak gara. Alerta ahotsa da gurea.

Zer idatzi duzu Kaieran?

Guk, Plataforma-kideok, hitzaurrea idatzi genuen eta gure asmoa da gizarteari eskatzea adierazi dezala zer iritzi daukan gertatzen ari denaren gainean. Jendeari esaten dioguna da idazten duten horren ardura baino ez dutela izango, baina jokoan gizarte osoaren eskubide zibil eta politikoak daudela. Euren eskubideak defendatu ezean, eskubideetan atzera egiten ari gara. Azken baten, balio duena da azkenean eratuko den manifestua.


Nola ulertzen duzu 18/98+ sumarioa? Zer dago horren oinarrian?

Azalpenak asko dira eta guztiak ez dira gure aldekoak. Gatazka politikoak, bere indarkeriarekin eta bereziki ETArekin atentatuekin, jende asko gogaitu du. Hortik aldentzeko, beste leku batera begiratzera ohitu gara (badira, jakina, edozer egiteko gai direnak, beste militar hura legez). Ulertu behar duguna da epaiketa horrek dakarren aberrazio juridiko-politikoak, baduela atzetik konpontzen ez den arazo batek dakarren neke soziala. Horrek batzuentzako, sufrimendu handia ekarri du eta hori guztia Aznar bezalako pertsonaia baten gehiengo absolutuarekin bat egin ezker, daukaguna dator.

Sumario horretan "dena" sartu dute, baina bereziki aipatu nahiko nituzke komunikabideak. Zer dakar Berrria eta Eginen itxierak gaur egungo gizartearen?

Medioek ez dute deliturik egiten, akaso pertsonak egingo dituzte delituak. ETA ideologikoki justifikatzen duten pertsonak edo dirua banda armatuari bideratuko dioten pertsonak edo epaiketaren beste edozein akusazio egiten dutenak, demonstratu egin beharko luke eta pertsona horien atzetik joan, baina ez inondik inora komunikabide bat itxi. Horrek ez dauka ez buru eta ez hanka. Nola daiteke 1997an hasitako prozesu batek oraindik orain itxi barik egitea?

Bitartean, badago euskal gizartearen parte bat, mehatxatuta, mugatuta, galera ekonomiko izugarriekin eta besteongan



Bergaran izan zen eguaztenean Mariano hitzaldia egiten San Joxepe elkarteak gonbidatuta.

"18/98+ Kaierak, eta Plataformak berak, alerta ahotsa izatea nahi du"

"Euren eskubideak defendatu ezean, eskubideetan atzera egiten ari gara"

hurbiltzeko beldurra... Hortaz, egoera horrek sortzen dituen emaitzak eztaba daezinak dira. Gainera, gerora ez dute aurretik adierazitakoa konpontzen eta norbaitek esango du inoiz: "Hara! Nolatan itxi zituzten haiek, errugabeak baziren?", baina dagoeneko hilik daude *Egin* eta *Egun-karia*.

Azaroaren 22an hasiko ei da azke-nean epaiketa. Ordura bitartean bestelako erabakirik hartuko ote du PSOEk?

Alderdi Sozialistak, jada ekipajea sartuta izango ez balu, bere gain hartuko ez lukeen maldeta da auzi hori guztia. Gertatzen dena da une txarrean egokitu zaiola. Adibide bat: erraza da NATOn ez sartzea, baina ezinezkoa da NATOTik ateratzea eta hor Alderdi Sozialistari gertatu zitzaiona dago.

Hortaz, zertan geratuko da Zapateroren talantea?

Ez dut uste PPrekin bestelako arazoetan sartu nahiko duenik, estatutuaren nahaspila hor izanda; aurretik ere Iraketik alde egitea erabaki zuen eta galera asko jasan behar izan ditu horregatik. Beste zirkunstantzia batzuetan, ziur naiz Alderdi Sozialistak hari gehiago mugiarazi izango zituela, baina jada ez nago hain seguru, politikoki oso arduratuta daudelako eta erruleta jokatzeko gogo txikiarekin direlako.

Epaiaketa egiten bada, zein izango da epaia?

Epaiaren zain geratzea dugu aukera bakarra. Egia da epaiketa askoren aurrean kezarako motibo asko egoten dela, baina ez daukagu zertan guztiak saku berean sartu. Nire lehenengo esperantza epaileengan dago. Sinistuta nago kontzientzia judicialarekin jardungo duten epaileak badirela. *Konforme a derecho* epaitzen dutenean, prozesu hauek aberrazio juridiko hutsak direla ikusiko dugu guztiok.

Bakea gaur eta hemen izenburuko hitzaldia egin zenuen Bergaran. Baina bake prozesu hori benetan martxan dagoela uste duzu?

Egia da ETA, gizarte honen mugida politikoa bat lideratzen duen abangoardiako proiektu legez, erabat agortuta dagoela, eta, horren harira, ETA agorturik dago proiektu politikoa-militar moduan. Beste kontu bat da erabat amaitzea; izan ere, ETA ez da bakar-bakarrik arazo poli-

tiko baten erakusle. ETA bere kideek nahi izan duten ETA da. Dena dela, Espainian duten eta Euskal Herria eta ETArekin zerikusia duen arazo politikoa larria da. Abilezia handia behar du konponketak eta luze joko du, asko direlako konpondu beharreko kontuak eta, batez ere, asko garrastu direlako azkeneko urteetan hartu-emanak. Horren aurrean, egia da atzera bueltarik ez dagoela; hortaz, elementu garrantzitsua da ETAk atzera buelta egingo ez duela lehenengo; bigarren, gobernuak interesa izatea hori gerta dadin eta hirugarren, euskal gizarteak hori gertatzea nahi duela, ez duela inondik inora atzera lehengo moduan egon. Hori guztia kontuan izanik, esperantza izan behar duzu alderdi politikoa eskuzabalago arituko direla aurrera begira. Azken baten, arazo politikoa enkistatu egin bada, ez da soilik ETArekin amaitzea zaila delako, baizik eta ETArekin amaitu nahi izan duen bakoitzak berari ondoen zetorkion moduan egin nahi izan duelako eta ez zaiolako interesatu beste bati hobeto zetorkion biderik. Eta, jakina, arazo horren konponketan aukeratutako bidearen ondorio politikoa ez dira berak izaten, bat edo beste hartu. Horregatik diot egunen baten, eta aldeko ezaugarri asko eta asko egonda, etorriko dela eta baikorra izatea baino ez zaidala gertatzen. Hala eta guztiz ere, euskal eszenatokian ikusten ari naizena bakarrak geratzen banaiz, nik neuk ez ditut ikusten beharrezkoak diren jarrera aldatketak.

Zuk zeuk urte asko eman dituzu medioetan lanean, atentatuen berri eman behar izan duzu askotan; gauzak bestela daudela uste duzu? EAJren proposamena, Bide Eginez proposamena... Urrats hauek guztiak zerbait adierazi nahi dute?

Proposamen eta adierazpen horiekin denbora luzea daramagu. Ez dagoena da bakoitzak txarto egin duenaren onarpena. Hori ez du inork egiten. 30 urte daramatzagu, eta badira guztietan egon diren agente politikoa, eta zergatik jarraitzen dugu berdin? Niri ez zait balio esatea ezker abertzalearen irmotasunagatik; oso eroso da hori. Aldi berean, ETA guztiaren erruduna dela esateak ere ez dit balio. Hortaz, egiten diren hausnarketen aurrean, konturatzen naiz inork ez duela atzera begiratzen eta bere erruak aitortzen. Horrelakorik gertatzen ez den bitartean, ezinezkoa izango da akordiorik egotea.

Elkarrik ere bere bidearekin jarraitzen du. Orain, berriz, aurrera jarraitu edo zer egin eztabaidatzen ari dira. Zer deritzozu?

Ez naiz Elkarriko kide eta ez dakit zer iritzi duen elkarrekin, baina Elkarrik elkarrizketa bidezko soluzio baten premia gizarteratu zuen eta ideia hori erabat barneratu du gizartearen ezinbesteko legez. Gatazka ordezkarik naturalarekin bide politikoa sartzen denean objektiboa bete-ta izango du Elkarrik.



Mariano Ferrer Donostiako Herri Irratiko esatari izan zen uztailaren 9ra arte.

"Irratia lagatzeagatik daukadan pena bakarra da entzuleekiko nuen lotura"

Urbete da Herri Irratian urte luzez egiten zuen *El Kiosoko de la Rosi* itxi zuela eta erretiroa hartu. 2004ko uztailaren 9an laga zion Kioskoa zabaltzeari, baina ez, ordea, Donostiako kiosko hartan egunkariak erosteari.

Nola bizi da Mariano Ferrer irratia laga zuenetik?

Uste nuen nagitasunerako asti luzeagoa izango nuela, edo behintzat, erretiratupei dagokien horretarako. Baina hariak ez dira guztiak batera apurtzen eta gainera, norberak ere, astia izango duela sinistuta, baietz esaten dio hainbat egitekori. Hala ere, egia da naizena baino erretiratuagoa izan nahiko nukeela. Gainera, nik neuk moztzen ez badut, moztu egingo didate. Inertziagatik oraindik mugidan egotea normala da hein batean, baina horrek iraungitze-data dauka, eta laburra, gainera.

30 urte luze egin zenituen goizeko 5etan jaiki eta egunkari saltokietara joaten. Jarraitzen duzu Rosiren kioskoan egunkariak erosten?

Egunero jaikitzen naizena joaten naiz kioskora, bi arrazoiengatik: batetik, paseotxo bat egiteko -gomendatu egiten digute, gainera, adin honekin eta bestetik, norberaren bizitzarekiko hari bati eusteagatik eta fidelitasunagatik horren-

beste izan den kioskoarekin; izan ere, horri esker, irakurketa askorekin gozatu ahal izan dut, kostu oso baxuarekin; eta bere kabuz egin beharra izan duen batentzako, oso garrantzitsua da hori.

Ze albiste eman barik geratu zinen?

Harritu egingo zinateke, baina urtebeteko erretirotik bi gauza azpimarratuko nituzke: lehenengo gaurkotasan informatiboarekiko lotura, garun-salda legez, uste nuena baino indartsuagoa dela. Askok kostatzen ari zait "horrek jada ez dit axola; ez daukazu zertan jakin!" barneratzea. Oraindik jarraitzen dute mekanismo hoiek martxan. Oso barneratuta daukat jarrera hori; uste baino askoz ere gehiago.

Aldiz, irrattik pentsatzen duzun esate horrek erabat desagertu da. Harrituta nago. Ez diot behin ere esan nire buruari "irratian banengo hau horrela esango nuke".

Irratia uztea prozesu oso argia izan zen; irrattik jarraitzeko aukera nuen, baina nahikoa zela pentsatu nuen eta milaka aldiz esana neukan pentsatzen dudana; hortaz, iritsi zenean -pare bat urte lehenagotik neukan erabakia hartuta- normaltasunez iritsi zen, inolako trauma edo minik barik.

Irratia lagatzeagatik daukadan pena bakarra da, badakizula gizartearen sektore bat, lagun multzo bat, hor dagoela, zurekin batera esnatzeko ohituta duela... Nolabaiteko lazo hori galdu dudala badakit eta horrek eragin dit nolabaiteko mina, baina hori da guztia. Ez dut irrattia faltan sumatzen, ezertarako ere.

"Naizena baino erretiratuagoa izan nahiko nuke; inertziagatik oraindik mugidan egotea normala da"

"Egunero, jaikitzen naizenean, joaten naiz kioskora, norberaren bizitzarekiko hari bati eusteagatik"

"Gaurkotasan informatiboarekiko lotura, garun-salda legez, uste nuena baino indartsuagoa daukat"

"Mugida politikoa lideratzen duen abangoardiako proiektu legez agorturik dago ETA"

"30 urte daramatzagu, baina ETA guztiaren erruduna dela esateak ez dit balio"

MINTEGIA | HIRU EGUNETAN ZEHAR IKASKETA METODO BERRIEN EBALUAKETAZ JARDUN DUTE MU-N



Küger-Basener irakaslea aritu zen egubakoitz goizean ebaluaketez eta sistemez.

Ikasleen ebaluaketa justua zein den aztertu dute

Alemania, Danimarka, Frantzia, Eskozia eta Euskal Herriko unibertsitateak izan dira biltzarrean

Marijo Deogracias

Proiektuen garapenean oinarritzen den ikasketa metodoak eskaintzen dituen aukerak aztertzeko asmoz, Alemania, Danimarka, Eskozia, Frantzia eta Euskal Herriko hainbat unibertsitateak ordezkariek aritu dira Arrasaten eztabaidatzen aurreko egunetan. Mondragon Unibertsitateak antolatutako mintegia izan da. Iaz parte hartu zuen lehenengo antzeko seminario baten MUK, eta han Mendeberrri proiektua aurkeztu zuten. Horri esker, aurreko mintegiaren antolakuntza egokitu zaio MUKi. Ikasketa metodoarekin batera, ebaluaketa metodoa ere sistema berriari egokitu behar zaiola eta, horretaz jardun dute adituek laugarrenez egiten den mintegian.

IKASTEN IRAKASTEA

Gaur egungo enpresek, profesionalez gainera, hainbat lan arlotan arituko diren adituak nahi dituzte. Horri erantzuteko ikasten irakastea nahi duen hezkuntza metodoa sortu da, arazak modu praktikoan konpontzeko hainbat ezagutzaren aldibereko aplikazioari esker.

Mendeberrri horretan dabil eta aurreko aterako dira horrela ikasi duten lehenengo ikasleak.

Mendeberrri proiektua bat dator erabat Europatik datozen irakaskuntza metodo berriekin.

MIREN ZUBIZARRETA | MENDEBERRIKO DINAMITZAILEA

"Ebaluaketa metodoa ere aldatu beharra dago"

M.D.

MUKo irakaslea eta Mendeberrriko dinamizatzaileetako bat da Miren. Zapatura bitarteko seminarioaren antolatzaileetako bat izan da bera.

Zertarako izan da seminarioa?

Hezkuntza proiektuetan aldatzeko sartzeko ari gara eta gure moduan horretan ari dira beste unibertsitate batzuk ere. Esperientziak trukatzeko balio digu mintegiak.

Zer ekarpen egin du Mendeberrri?

Beste unibertsitate batzuen aldaketei jarraipen teorikoa egin diegu. Hala ere, esperientzia ins-

tituzional moduan, gurea da bakarrenetarikoa eta jada ingeniarietan, zein irakasle eskolan eta ETEOn ere, hasita gaude hezkuntza proiektu berriekin. **Mintegia antolatzea tokatu zaizue, iaz Mendeberrri antzeko seminario baten aurkeztu ostean. Zertaz aritu zarete oraingoan?**

Gaia zehaztu gura izan dugu eta ebaluaketa jardun dugu, gehien bat. Metodoz aldatzen baduzu ebaluaketa metodoa ere aldatu beharra dago, baina hortxe dago zailtasunik handiena. Oso zaila izaten da ebaluaketa sistema justua sortzea. Nola ziurtatzen dugu gaituzten duenak badakielako? Agian, azterketak ez du hori erakusten, baina aldi

berean, ze metodok edo tresnak erakutsiko digu ikasleak badakielako? Aztertu duguna da, proiektuetan oinarritzen den ikasketa metodoarentzako azterketa den ebaluaketa metodorik justuena, portaerak beharri eta neurgarri izan behar baitira.

Zenbat proiektu egiten dituzte ikasleek?

Hiru ikasgai sartzeko dira proiektu bakoitzean, sei hileroko. Hiru dira bakarrik, kredituetan matrikulatzeko eskubideari eustegatik.

Nola joan da esperientzia?

Aurreko aterako da merkatu-ira ikasketa metodo horrekin ikasi duten lehenengo ikasle taldea. **Nola joan da esperientzia?** Orokorrean emaitzak hobetu egin dira. Lehen ikasleek azterketen bezperetan igartzen zuten presioa. Orain, aldiz, azarotik igartzen dute presioa, baina emaitzekin oso gustura gaude.

• EBALUAKETA METODOAZ GALDETUTA



FRANÇOISE MAILLE | PARISKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

"Proiektuan barneratutako kontzeptuak dira garrantzitsuena"

Bruselan aritu da hezkuntza gaietarako aditu legez eta handik proposatzen dituzten metodoek euren lantzen dituztenen ildo jarraitzen dutela adierazi digu. Bere iritziz, "ebaluaketa tradizionalki ikasketa prozesuaren muina da eta ikasketa prozesua proiektuetan oinarritzen da, baina helburua ez da proiektua bera, baizik eta proiektua garatzeko barneratzen diren kontzeptuak. Hori da, azken baten garrantzitsuena".



REINER LOHMÜLLER | FACHHOCHSCHULE OLDENBURG (ALEMANIA)

"Proiektuak garatu beharra etorri da metodo aldaketarekin"

"Orain arte hezkuntza proiektua goitik behera etorri da, baina orain ikasketaren prozesua birplanteatzen ari garenean aldaketa horrekin batera etorri da proiektua garatzeko beharra eta metodo horrekin garapen horren parte bat ebaluatzeko beharrez ere ohartu gara. Horretaz ari gara mintegi honetan, izan ere, ikasketa prozesu horretan garrantzitsuena da oso proiektuak garatzen ikasi dezatela ikasleek eta irakasleek".



BRIAN K. TEMPLE | GLASGOW CALEDONIAN UNIVERSITY


"Ebaluaketa sistema kritikoa da guztiokina"

"Azken baten ebaluaketa oso kritikoa da: ikasleari esaten diolako zein ondo ikasi duen, enpresari erakusten diolako zein ona den ikaslea eta irakasleari, berriz, bere lana zein ondo egin duen. Hortaz, ebaluaketa egiten denean ez da soilik ikaslearen lana ebaluatzen; gure buruaren ebaluaketa ere egiten dugu. Enpresek nahi izaten dute beste arloetara aplika daitezkeen trebetasunak izatea eta horiek ebaluatu behar dira".



Miren Zubizarreta.

Ikasleei ere balorazioa egin dezatela eskatzen diegu. Euren iritziz, proiektua egiteko denbora gutxiegi izaten dute, baina guztiak amaitzen dute. Oso ondo baloratzen duten gauzetako bat, proiektua lantaldean egiteko aukera da; oso ondo baloratzen dute galdetegiaren.



ARGAZKI PRESS

Tokiko hedabideetako arduradunak agerraldiaren aurretik.

Tokiko telebistek kinka larritik irteteko laguntza eskatu diete Administrazioei

Digitalizazioari aurre egin eta baimenak lortzeko laguntza eta konpromisoa eskatu diete Administrazioei tokiko telebistek

J. B.

Administrazioari dirulaguntza gehiago eta arreta handiagoa eskatu dizkiete euskarazko tokiko telebistek uneotan dauden egoera larriari aurre egin ahal izateko. Egubakoitz goizean, Donostian egindako prentsurrekoan emititzeko baimena lortzeko deia egin dute Inazio Arregi, Goienako Zuzendari Nagusiak, Jon Altzuguren, Ttipi-ttapa telebistako arduradunak, Iban Goikoetxea Zarauzko Telebistakoak eta Jon Aldanondo Goierrri Telebistakoak, Topaguneako Iker Martinez de Lagosekin batera.

Mugarria izango da 2008. urtea tokiko telebistentzat. Orduko formatu digitalean emititu beharko dute kateek eta lehenago baimenak lortu eta egokitzenak egin beharko dituzte.

Horiek lortzeko berebiziko inbertsioa eta lana egin beharko dute tokiko telebistek. Hala, tokiko ikus-entzunezkoen sektorea egoera larrian dago, agerraldian

Digitalizazioari nekez egingo diote aurre gaur egun jasotzen dituzten dirulaguntzekin

Administrazioei gogoetetara gehitzera gonbidatu eta laguntzak eskatu dizkiete

azaldu zuten, nekez erantzun ahal izango diete eta etorkizuneko erronkei 150.000 euroko aurrekontuarekin bakarrik.

ADMINISTRAZIOARI ESANAK

Lehenik eta behin, prentsa eragileek bere garaian eskatu bezala, dirulaguntzak garaiz ordaintzeko eskatzen diete Administrazioari, desfase ekonomikoak saihesteko. Honekin, 2006. urterako gutxienez 500.000 euroko partida bat izendatzea eskatzen dute, telebista gehiago izango baitira kopuruz eta inbertsio handiagoari aurre egin beharko diotelako. Era berean, Nafarroako kasuari arreta berezia eskaintzeko esan dute, bai Nafarroako administrazioetik zein Euskal Autonomia Erkidegotez ere. Azkenik, Plan Estrategikoa gura dute tokiko telebistek euskarazko hedabideentzat, hala nola, Ikus-entzunezkoen liburu zuria eta Kulturaren plan estrategikoan. Amaitzeko, gonbidapena luzatu diete Administrazioei gogoetetara gehitzeko.

Datozen egunetan hasiko dituzte Ugarkaldeko urbanizazio lanak

Guztira 300 etxebizitza berri jasoko dituzte eta horietatik 210 babes ofizialekoak izango dira

J. B.

Egubakoitz goizean ipini zuten Oñatin Ugarkaldeko etxebizitzak eraikitzen hasteko lehen harria. Datozen egunetan hasiko dira lehenengo lanak eta bost urte barru amaitu gura dituzte egingo diren 300 etxebizitzak.

Egubakoitzeko ekitaldiarekin eraikuntza-lanen lehen fasea hasiko dute, eta guztira 75 etxebizitzako 3 bloke jasoko dituzte. Horiek guztiak, gainera, babes ofizialekoak izango dira eta urte amaierarako egin gura du Udalak haien zozketa publikoa. Izan ere, Udalak konpromiso berezia hartu nahi izan du babestutako etxeekin. Bigarren fasean promozio libreko 60 etxebizitza eta tasatutako hamabost egingo

dituzte; ondoren, hirugarren fase baten, babestutako beste 80 etxebizitza eraikiko dituzte. Lanak, esan bezala, bost urte barru izan gura dituzte bukatuta, beste 40 etxe babestu eta familia biko 15 txalet eraikiko diren laugarren fase batekin. Honenbestez, eraikiko diren 300 etxebizitzetatik 210 izango dira babestutako etxeak, Sukia eraikuntza enpresarekin sinatutako hitzarmenak zehazten duenez.

LEHEN HARRIA IPINITA

Egubakoitz eguerdian egin zuten ekitaldian, lehen harria kokatzeaz gain, metalezko pote baten egungo objektu batzuk ere lurperatu dituzte. Gabriel Arestiren poema bat, planoak, proiektuan parte hartu duten guztien izenak, egunkariak, urriko Kontzejupetik aldizkaria, euro batzuk eta Udaleko ikurra. Lehen harriari On Sabinok eman zion bedeinkapena. Zere-moniarekin amaitutakoan lanen nondik norakoak ikustera joan ziren Udaleko eta proiektuaren arduradunak, Kutxako ordezkariak eta hainbat herritar.

Babes ofizialekoak 210 izango dira eta urte amaierarako egingo dute lehen fasekoen zozketa



OIHANA ELORTZA

Ugarkaldeko lanen lehen harria egubakoitz eguerdian ipini zuten.

smsoinu

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

7505
zenbakira

Deiaren prezioa:
0,90 + BEZA



Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

OHARRAK

1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.

2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeak, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematean doan da eta Kb jantziak bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sistemari alta ematea doan dira.
* Euskaratutako deitu: 900 84 02 00 telefonora. / * Vodafone: deitu 123-ra. / ** Movistar: deitu 609-ra.

3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu **902 01 21 48** telefonora.

4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin ditzaitezue abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu **902 01 21 48** telefonora.

ABESTIAK POLIFONIAKOAK (SMS 1) Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

Himnoak
Elbarri EIBAR
Athletic Club | BILBAO
Osasuna | OSASUNA
Real | REAL
Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) | AITORMENA
Bi Minutuero (Hertzainak) | BIMINU
Dub manifest (Fermin Muguruza) | DUB
Egunero (Hertzainak) | EGUNERO
EH Sukarra (EH Sukarra) | SUKAR
Eus dion mierda, nosotros amen (La Polla) | ELLOS
Enamorado de la muerte (RF) | ENAMO
Etorbizuna (Esakiak) | ETORKI
Ezer ez da betiko (Ker7) | EZER
Gora Herria (Nogu Gorriak) | GORA

Hator Bel-Air (Bida Erribean) | BELAIR
Haizea (Ker7) | HAIZEA
Hegal egiten (Itziar) | HEGAL
Ikusi (Delirium Tremens) | IKUSI
Ilargia (Ker7) | IARGIA
Inperuen ate joka (Gatzubi) | INPER
Jokin Urairi hitzak (Bide Erribean) | JOKIN
Kaiko (Ker7) | KAIKO
Lau Teiltatu (Itziar) | ITOIZLAU
Laztana (Laztan) | LAZTA
Lotuta egon arren (Koke) | LOTUTA
Maretoa (Lore) | LOREA
Marea Gora (Itziar) | MAREA
Musturrek sartunde (Gatzubi) | MUSTURREK
Nigaragua (Kortatu) | NICA
No time for love (Hertzainak) | NOTIME
Salve (La Polla) | SALVE
Sarri Sarri (Kortatu) | SARRI

Sorginen leizean (Esakiak) | SORGIN
Txatxo (Zarama) | TXATXO
Txus (La Polla) | TXUS
Trikitxia
Bexamela ta pastela (Maita ta Iker) | BEXAMELA
Bokespok (Kepa Junkera) | BOKESPOK
Hik lan eta nik jai (Tapiak) | HIK
Itsas ontzi baten (Ikasena) | ITSAS
Kupela (Egido eta Larrañaga) | KUPELA
Mila galdera (Maita) | MILA
Nirekin (Gatzubi) | GOZATEGI
Ny Hirahira (Kepa Junkera) | HIRA
Txanpon baten truke (Aitz / Maita) | TXANPON
Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bek) | SOROTAN
Bai euskarari (Pamoa) | BAI
Bakezaleak (Anje Duhalde) | BAKE
Bakea Maita (Berrio Larburu) | BIZKAIA

Eperrak (Anje Duhalde) | EPERRAK
Euskal Herria Euskaraz (Osakor) | EUSKAL
Euskal Herria Euskaraz (Osakor) | EUSKAL
Ez da posible (Ruper Ordoika) | POSIBLE
Furra Furra (Osakor) | FURRA
Galiziera noa (Osakor) | GALIZIARA
Gernikako Arbola (Gonzalo Mendibil) | GERNIKA
Haika Muti (Mikel Laboa) | HAIKA
Izarren hutsa (Koblar Leta) | IZARREN
Lepoan hartu ta (Pamoa) | LEPOAN
Marinelaren zai (Sorotan Bek) | MARINE
Nere herriko neska ba maita (B. Larburu) | NERE
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarai) | NON
Oñ Ama Euskal Herria (B. Larburu) | OIAMA
Tirauki (Osakor) | TIRA
Txabamabailabau (Mikel Urdangarai) | TXATXA
Txoria txori (Mikel Laboa) | TXORIA
Zaindu maita duzun hori (Ruper Ordoika) | ZAINDU

Herrikoia
Bagare | BAGARE
Desde Santurce a Bilbao | DESDE
Kusi Mendizaleak | MENDI
Pimbo-pimbo | PINTXO
San Simon eta San Judas | SAN
Jaietakoak
Artilleria dale fuego | ARTILLERO
Marrigia (Kepa Junkera) | JAJA
San Fermín | FERMIN
San Martzialako alardeak | SAN MARTZIAL
SOINU ERREALAK (2 sms)
Soinu izena | KODEA
Irrintzi | IRRINTZI
Txalaparta | TXALAPA

LOGOAK (sms1)

LAU1

LAU3

NUKLEAR

LORA

SORGIN

ARRANO

JOKOAK (4 sms)

SUDOKU

BARONROJO

BOINK

RALLYDELUXE

FUTVOLEY

SOBALL



BERANGO

LOGOS
ALTZARI INTEGRALAK

DEKORAZIOA, SUKALDEAK

Tel.: 943 79 01 92
Gipuzkoa etorbidea 1
20500 Arrasate

Muebles

Kabía

Altzariak

4 URTE
interes barik

Gipuzkoa etorbidea 23
20500 Arrasate
Tel./Faxa: 943 79 27 70





AITOR LIZARRALDE

Dagoeneko nabari da hilerrietan Domu Santu bezperan gaudela.

Domu Santu eguna dela eta ordutegi berezia hilerrietan

Arrasateko Udalak urbano zerbitzu berezia jarri du San Kristobal hilerriara joateko gaurko zein biharko

A.G.

Bihar, azaroak 1, Domu Santu Eguna da. Ibarreko hilerriak lorez janzen hasi dira eta batzuek ordutegi berezia ere izango dute gaurko zein biharko egunari begira.

Arrasateren kasuan, Aldai hilerriak itxita jarraituko du, segurtasun arrazoiengatik; gainera, oso gorpu gutxi geratzen dira han, dagoeneko. Hortaz, San Kristobal hilerria bakarrik egongo da zabalik. Ordutegiari dagokionez, 09:00etatik 20:00eta-

ra egongo da irekita, gaur, astelehena zein bihar, martitzena. Bestalde, urbano zerbitzu berezia ere egongo da hilerriara joateko.

Bergarako hilerriak ordutegia zabaldu du. Gainerako herriek ohikoa izango dute

Gaur, astelehena, orduro irtengo da Gorostizatik eta urbanoaren geldiupe guztietan geratuko da. 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara ibiliko da urbanoa. Hilerrietik herriara jaisteko, berriz, erdietan abiatuko da (azkena 18:30ean izango da).

Bihar, berriz, areagotu egingo du maiztasuna: ordu erdiro irtengo da Gorostizatik; baita San Kristobaletik jaitsi ere.

Bergarari dagokionez, gaur, astelehena, 09:00etatik 19:30era egongo da zabalik eta bihar, martitzena, 08:00etatik 19:30era.

Ibarreko gainerako herrietan ez dute ordutegia moldatuko Domu Santu Egunarengatik. Hortaz, ohi bezala, ordu oro egongo dira hilerriak zabalik.

8,5 milioiko aurrekontua onartu du Mankomunitateak

Debagoieneko Mankomunitateak eguaztenean onartu zituen 2006ko aurrekontuak

A.G.

Iaztik aurrekontua %5,5 handitu da, azkeneko 3 urtetan izan den gehikuntzarik txikiena. Hala ere, guztira, 8.504.500 euro pasatxoko aurrekontua onartu du Debagoieneko Mankomunitateak datorren urterako.

Diru partidarik handiena ingurumenaren atalarena da, 5.049.252 euro. Hortxe aurreikusten dira kontsurtzioaren sorrera, bai eta eguzki plaketan egingo diren inbertsioak eta olioen bilketaren maiztasuna gehitzea ere.

ESKUALDEKO HILTEGIA

951.889 euroko aurrekontua onartu da hiltegiarendako, eta Durangoko eta Gasteizko hiltegiak itxita, 2006ko helburuak beteko direla aurreikusten du Mankomunitateak, izan ere, "2005eko ak baikorregiak izan ziren".

MUNDUMIRA OÑATIN

Aurten Arrasaten egin da Mundumira jaialdia eta datoren urtean Oñatin egitea erabaki du Mankomunitateak. Horren haritik, aurrekontuak ere gora egingo du eta 2006ko aurrekontuetan 91.680 euroko partida onartu dute jaialdia egiteko, turismoari dagokion partidaren barruan (aurten kulturatik bideratu da). Bestalde, lurralde antolamenduaren atalean, bizikleta bideen sarea, tranbia eta Elorregi gunea aurreikusitakoak dira, besteak beste, 146.282 euroko aurrekontuarekin.

Bergarako Gomendatzen dizut saria Regina Vargasek irabazi du

A.G.

Regina Vargas eibartarrak eronan du Bergarako Gazte Informazio Bulegoak antolatutako Gomendatzen dizut saria.

Plasencia (Caceres) ezagutzera joatea gomendatu du Vargasek eta horretarako eman dituen arrazoiak dira, besteak beste, "hiriak dauzkan alde zahar txiki eta polita eta oso ego-

era onean mantentzen den ubidea", hain justu ere.

Begarako bulegoan hamabost gomendio jaso dituzte. Horietatik hamaika emakumezkoenak eta lau gizonezkoenak bidalitakoak. Parte-hartzaileen adin tarteari dagokionez, gehienak 30 urtetik gorakoak izan dira. Gomendioak, berriz, hiriburua zein herrialde- en gainekoak, alojamentuenak eta museoenak, esaterako.

• LAN ISTRIPUA ELGETAN



LARRAITZ ZEBERIO

HONDEATZEKO MAKINA IRAULI ZEN SAIHESBIDEAN

Egubakoitz eguerdian irauli egin zen Elgetako saihesbidea eraikitzeke lanetan diharduen hondeatzeko makinetako bat, Salvador kalearen goiko aldean. Zanga egiten ziharduela egonkortasuna galdu eta irauli zen hondeatzeko makina. Gidariak besoa apurtu zuen lan istripuan.

Labur

Zubia dela eta eskaintza berezia egingo dute Turismo Bulegoek

Oñatikoaren kasuan, informazio gunea jarri du Unibertsitatean. Gaur eta bihar egongo da zabalik, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Bisita gidatu bereziak (Unibertsitatea eta parroquia ikusteko) egingo dituzte 12:00etan eta 17:00etan. Bergarari dagokionez, gaur, 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 18:30era egongo da zabalik; bihar, 11:30etik 14:30era. Han ere doako bisita gidatuak egiten dituzte. Gatzagan ere zabalik egongo da gaur eta bihar Gatz Museoa. Bisitak 12:00etan (euskaraz) eta 13:00etan (gaztelaniaz) izango dira.



URKI

Etxez Etxeko Laguntza

Pertsona nagusiendako edo ezinduekako laguntza pertsonala eta etxeko lanetarako laguntza eskaintzen dugu

Interesatuok deitu: 685 70 06 39 telefono zenbakira

URRIKO AZKEN ASTELEHENA | DEBAGOIENENKO HIRU LAGUNEK SALTOKIA JARRIKO DUTE GAUR GERNIKAKO AZOKAN

Ibarreko ezitia, gazta eta larrukiak daude salgai gaur Gernikako azokan

Gatzagako Eskuz Larrugintza eta Oñatiko Fernando Lizarralde erlezaina eta Gomiztegiko gaztagileak joan dira Gernikako azokara

Marijo Deogracias

Gaur egiten ari dira urriko azken asteleheneko Azoka, Gernikan. Nikolas Segurola Gomiztegiko artzainak dioenez, "Santa Lutzia-ko azoka kenduta, ez da Gernikakoaren mailako azokarik egongo". Fernando Lizarralde Oñatiko erlezainak ere "Gernikakoa mundiala" dela esan digu: "Jendetza izugarria batzen da eta onena da asko saltzen dela. Jendeak badauka erostera joateko joera eta hori, beste azoka batzuen aldean, igarri egiten da". Biak daude Gernikan gaur. Nikolasek esan zigunez, goizeko 10ak aldeira joateko asmoa du. "Koldo Madariaga da gaztagilea eta han izango da bera, bekadun daukagun Ramon Muñoz kolonbiarrekin batera". Hortaz, Ferdandoren ezitia eta Gomiztegiko gazta salgai daude gaur Gernikan.

Gatzagako Eskuz Larrugintzako produktuak, berriz, atzo ezkererako dira Gernikan. Izan ere, artisauendako atontzen dituzten erakuslekuak domekatik jartzen dituzte Pasealekuan. Dabid Fernandezek, Eskuz Larrugintzako

kideetako batek, esan digunez, "birritan izanda nago Gernikako azokan. Joan nintzen lehenengo aldiari artisauak ere beste saltzaile guztiekin batera jartzen gintuzten; orain dela urte pare batetik hona, ordea, guretzako karpak jartzen dituzte eta domekatik joaten gara saltzera". Esku Larrugintzakoak ere bat datoz esaten "jende asko" ibiltzen dela urriko azken asteleheneko azokan. Salmentei dagokienez, ordea, "jende gehiago ibiltzeagatik ez dago zertan gehiago saldu. Jakina, saltzeko aukera gehiago dago, baina...".

AZOKA ZAILA

Jende asko eta salmentak ere onak, baina Gernikako azokak baditu debagoiendarren iritziz, alde kritikagarriak. Ferdandok esaterako, "Bizkaiko azoketara joatea oso zaila" dela aitortu digu. "Gipuzkoara lurralde guztietako saltzaileak datoz, baina Bizkaira, bizkaitarrak bakarrik joaten dira. Gu aspaldi joaten hasi ginelako, bestela baimenik lortu ez".


Lehiaketan gainean galdetuta ere, Nikolas Segurolak dioskunez, "bizkaitarrek gazta gogorretarako joera dute, hortaz, geureari ez diote saririk ematen. Hala ere, gure ondokoen aldean, azkarrago eta gehiago saldu ohi ditugu Gomiztegiko gaztak Gernikan". Gazta erdiak eramaten dituzte, 100 bat, etiketa berdedunak batzuk eta belzdunak beste batzuk. "Berdeak kriantzak dira eta beltzak, berriz, erreserbak", azaldu digu Segurolak.

Fernando Lizarraldek 200 erlauntz ditu eta Gure Ezitia izenarekin saltzen du ezitia; baina sariei dagokienez "sariak bizkaitarren artean banatzen dituzte", esan digu.



Atzo ere Gernikan izan ziren Eskuz Larrugintza tailerrekoak, poltsal, gerrikoak eta bestelakoak saltzen.

• GERNIKAKO AZOKAN IZANGO DIRA GAUR



FERNANDO LIZARRALDE. Urteak dira Gernikara joaten dela erlezain oñatiarra. "Gernikakoa azoka mundiala da; jendetza ibiltzen da, eta asko saltzen da. Hala ere, zaila da Bizkaitik gonbidapena jasotzea. Gurera badatoz, baina hara gutxi joaten gara".



GOMIZTEGIKO GAZTA. Urtero legez, Gomiztegiko gaztak salduko dituzte Gernikan. Koldo Madariaga eta Ramon Muñoz izango dira saltokian. Nikolas Segurolak esan digunez, "bizkaitarrendako gurea ahulegia da, gogorretarako joera dute eta".



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Albiste izango da

DEBAGOIENA | LEHENENGO BILERARAKO DEI EGIN DUTE

Bide Eginez eztabaida prozesua ibarreko hainbat herritan, asteen

Ibarrean ere abiarazi du Batasunak Bide Eginez eztabaida prozesua. Prozesu horretan, urria eta azaroa bitartean herri bakoitzean bi bilera egingo dituzte hiru gai nagusi lantzeko. Lehenengoan, azkeneko lau urteetan egindakoaren balantzea egin eta ildo politikoaren txostenaren gainean eztabaida izango dute; bigarrenean, ildo politikoaren eztabaidan sakontzeaz gain, antolakunde eredu definituko dute. Lehenengo batzarrerako egunak dira: Arrasaten, azaroaren 2an; Aretxabaletan, 3an; Antzuolan, 5ean eta Elgetan, 10ean.

ARRASATE | EGUENEAN, MONTEIRONEN

Mozambikeko Marrupa Programa berbagai Beñat Artzadunekin

Eraldaketa Itxaropena, Mozambikeko Programa Integrala izeneko hitzaldia egingo du Beñat Artzadunek eguenean, 19:00etan, Monterron jauregian. Marrupa Programa 2001. urtean sortu zen Mundukide Fundazioaren ekimenez. Programa Mozambikeko (Afrika) Marrupa barrutian dago kokatuta, hamar bat urtetarako plangintza da eta barrutiko garapen sozio-ekonomikoa bultzatzea du helburu. Horretarako nagusiki nekazaritza, azpiegiturak eta enpresa kooperatibo txikien sustapenean lan egiten du.

Artzadun izan da 2002 eta 2005 bitartean Programari hasiera emateko ardura izan duena. Ekitaldian Programaren nondik norakoez jardungo du.

ESKORIATZA | ESKAERAK UDALETXEAN AURKEZTU

Garaje itxiak errentan emateko lehiaketa publikoa egingo dute

Udalak kiroldegiko sotoan dauden bi solairuetako 24 garaje itxi zozketa publikoan aterako ditu. Batez beste, 15 eta 16 metro koadro dituzte. Kontratuak lau urteko epe luzaezinean egingo dituzte, eta hileko 36 euro ordaindu beharko da. Bestalde, prezioa urtero eguneratuko dute KPIren arabera. Lehiaketa publikoan esku hartzeko ezinbestekoa izango da, besteak beste, udalerrian bizitzea eta trakzio mekanikodun ibilgailu baten jabe izatea. Eskaera orriak udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, 11:00etatik 13:00etara, azaroaren 4ra arteko epean. Interesatuek honako agiriak ere aurkeztu beharko dituzte: NAREN fotokopia eta eskatzailearen zinteko aitortpena. Onartutakoen zerrenda gehienez 10 egunera eman gongo dute jakitera eta handik gutxira egingo dute lehiaketa.

DEBAGOIENA | EGUENEAN, 19:00ETAN, KULTURA ETXEAN

Euskal Herriak Bere Eskola taldeak Euskal Curriculumaz jardungo du

Euskal Curriculumaz zer den azaltzeko tailerra antolatu du Euskal Herriak Bere Eskola ekimenak. Eguenean, hilaren 3an, izango da, kultura etxean, 19:00etan. Horrez gain, Euskal Curriculum dinamikaz ere egiten dabil EHBE, herriz herri, eta hilaren 5ean Bergaran egingo dute. 11:00etatik aurrera izango da, Muni-be plazan eta hainbat ekintza antolatu dituzte, guztiak Euskal Curriculumaren harira: haurrendako jolasak eta tailerrak, nagusiendako antzinako jolasak, bertso saioa, luntxa, trikitia...

BERGARA | 10:00ETAN, SANTA MARINA ELIZA ONDOAN

Pertxa elkartekoek Kilometroak Txiki egingo dute bihar, martitzena

Pertxa elkarte gastronomikoko kideek anaitasun eguna ospatuko dute bihar, martitzena. Hori horrela, eta aurreko urteetan egin izan duten bezala, Bergaran Kilometroak jaia izan zeneko ibilbidea egingo dute. Honako egitaraua antolatu dute: 10:00etan egin dute hitzordua, Santa Marina parrokiaren ondoan eta handik abiatuko dira Kilometroetako ibilbidea egitera. Labegaraietara iristen direnean, han hasi eta Pertxa elkartera arteko txikiteoa egingo dute. Gero, 14:30 aldera, baba jana izango dute elkarrean (elkarrean dago izena emateko zerrenda). Elkarteko kideek dei egiten diete nahi duten herritarrei eurekin batera ibilbidea egitera.

Hitzorduak



I. DEBAGOIENEN SPINNING MARATOIKO IZENEMATE EPEA ZABALIK DAGO | Azaroaren 12an izango da, lau saiotan, eta lau tarifa ipini dituzte

Dagoeneko izena eman daiteke I. Debagoieneko Spinning Maratoirako. Maratoia azaroaren 12an izango da Bergarako Labegaraietako kiroldegian, 16:00etatik 20:00etara, eta ibarreko kirol zerbitzuetan eman daiteke izena azaroaren 9 arte. Argibideak, www.debagoiena.com webgunean.

Lau saio izango dira: 16:00-16:50 (E-goitek-ek gidatuta), 17:00-17:50 (Nuria Rodríguezek), 18:00-18:50 (Goienasport-ek) eta 19:00-19:50 (Santi Idigorasek). Saio bakarrerako matrikula 5 euro da; bi saiorako, 9; hirurako, 13; eta lau saioetan ibili gura duenak 17 euro ipini beharko ditu.

ANTZUOLA |

• **Erretiratuek Zerainera bidaiatuko dute azaroan**
Hilaren 10ean, Zerainera egun erdiko irteera egingo dute. Museoa eta kartzela bisitatu dituzte. Izena emateko, jo erretiratuen egoitzara hilaren 4an edo 5ean, 18:00-19:00 orduetean. 10 euro da.

ARETXABALETA |

• **Langileendako ikastaroak daude institutuan**
Jardunean dauden langileendako ikastaroak antolatu ditu Aretxabaletako Institutuak azaroan eta abenduan. Izena emateko aukera dago institutuko bulegoan edo 943 79 79 00 telefonora deituta.
• **1967an jaiotakoek kinto afaria egingo dute**
1967an jaiotakoek kinto afaria egingo dute azaroaren 19an Taberna Berri jatetxean. Aurretik, poteoa egingo dute Dagda pub irlandarrean hasita, 19:00etan. Izena emateko, jo lehenbailehen Taberna Berri eta ipini 10 euro. Horretarako mugaeguna duzue azaroaren 15a.

ARRASATE |

• **Yoga ikastaroa Sanatana Dharma Yoga Eskolan**
Eskolak dira astelehen eta eguaztenetan, 09:30-11:00 (Maita da arduraduna, 635 71 06 16),

eta martitzen eta eguenean, 18:30-20:00 eta 20:15-21:45 (Ana, 943 78 31 26). Deitu 21:00etatik aurrera. Eskola dago Erguin kaleko 2.ean.

• **Zainketaren gaineko hitzaldia Emakume Txokoan**
De la obligación de cuidar al derecho a que nos cuiden delako hitzaldia egingo du Mari Luz Estebanek eguenean, hilak 3, Emakume Txokoan, 19:00etan. ESK-k antolatzen du.

BERGARA |

• **Bergarako egutegian publizitatea ipintzeko aukera**
Bergarako Udala 2006ko egutegia egiten hasi da, eta han publizitatea ipini nahi duten herriko dendari, ostalari, enpresa, talde, ikastetxe eta abarrei dei egiten die. Interesatuenek Udala Euskara Sailera deitu behar dute (943 77 91 71). Azaroaren 11 da mugaeguna.

• **1987an jaiotakoek bazkaria egingo dute abenduan**
1987an jaiotako neska-mutilek batera bazkalduko dute Gabonetan, abenduaren 24an. Matxiategi tabernan batuko dira, eta izena hantxe eman behar da. Horretarako mugaeguna da azaroaren 24a.

• **Mariaren Lagundiko ikasle ohi batzuen ospakizuna**
1979an jaio eta Mariaren Lagundian D ereduan ibili zire-

nek afaria egingo dute azaroaren 26an Azpeitxi jatetxean. Izena emateko, 30 euro sartu behar dira Kutxako honako kontuan: 2101 0070 850125173039. Mugaeguna da azaroaren 20a.

• **Herriko giroa suspertzeko taldeak batzarra deitu du**
Azaroaren 3an, eguena, izango da, 19:30ean, kultura etxean. Herriko giroa suspertzeko taldeak batzar irekia dela dio eta interesa duten herritar guztiei egiten die dei.

DEBAGOIENA |

• **El Salvadorri laguntzeko dirua batzen dabilta**
El Salvadorri laguntzeko dirua batzen dihardu Oscar Romero Elkartasun Komiteak, Miguel Andueza bergarar domingotarra lankide duela. Hiru kontu korrante zabaldu dituzte: Kutxan, 2101 0001 14 0004048278; Euskadiko Kutxan, 3035 0059 81 0590021346; eta Banco Gupuzcoano erakundearen, 0042 0046 08 0100940620.

ELGETA |

• **Mendi bizikleta irteera egingo dute domekan**
Mendi irteera egingo dute azaroaren 6an, domeka. Bi ibilbide prestatu dituzte. Izenematea udaletxean egin behar da, eta egubakoitza duzue azken eguna. Doan da.

Iritziak



Isilpekoak

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• GI-2630 errepideko harriak

Oñatitik Bergarara datorren errepidearen kontura iritsi zaigu hurrengo txistua: "Gi-2630 errepidera harriak jausten direla eta, nire kexa agertu nahiko nuke. Harriak eskuineko menditik jausten dira eta, kontu larriena ez da kaminoan geratzen direla eta haiek saihesteko beste norabidera sartu behar izatea -horrek dakarren arriskuarekin-; arazoa da ez dela behin bakarrik izan harri jaustea. Hortaz, dagokionari eskatu nahi nioke, besterik ezean, sare edo hesiren bat jarri dezala mendiaren maldan. Ia horrela harri gutxiago jausten diren, errepidera behintzat".

• Zine aretoa behar dugu herrian

Joan zen egubakoitzean Bergaran eskaini zuten Aupa Etxebeste! filma eta horren haritik, gurera ere iritsi dira txalo eta txistuak: "Txaloak bidali nahi dizkiot *Kixi*, eta bere lagun Telmori, *Aupa Etxebeste* filmagatik. Ondo pasatu genuen filma ikusten eta hori txalotzekoa da, beti ez dago eta zinera joan eta euskaraz film bat ikusteko aukerarik. Txistuak berriz, Bergaran, *Kixi*-ren jaioterrian, ez ginelako zinera joan filma ikustera. Herriko pilotalekura joan behar izan ginen pelikula ikustera. Ez litzateke txarra izango pilotalekua horretarako egokituta balego, baina! A ze pena! pilotalekua horretarako egokitua ez egoteaz gainera, herrian zine aretorik ez dagoelako halabeharrez joan behar izan ginen hara. Txistuak, hortaz, herriko agintariei Bergara bezalako herri bat areto duin bat barik izateagatik eta txistuak bigarren, inolako irtenbiderik ez topatzeagatik Novedades zine aretoa ixteari. Besterik ezean, etxebestetarren antzera geu ere inprobisatzen hasi behar, egoera txarretan imajinazioa areagotu egiten baita".

Sarean harrapatuta

Arduratzen zaitu hegaztien gripeak?

Hegazti gripearen kontua berbaigai dugu asteotan. Oilaskoen salmenta kopurua izugarri jaitsi da, baina batzuek uste dute egoera ez dela horrenbestereinokoa. Diputazioak ere hartu ditu neurriak: azoketan

hegaztiak erakustea debekatu du. Europako Batasunak, berriz, azaroaren 30a arte hegazti basatiak inportatzea debekatu du. *Goiena.net*-en ere gaiaren gaineko eztabaida izan da. Hemen iritzi batzuk.

EZ DIGUTE EZER GARBIRIK ESATEN

Bai, horixe, asko arduratzen nau. Baina zein neurri hartu genezake? Ez dakigu ezer garbirik. Komunikabideak jardun eta jardun ari dira baina ez dute ezer garbirik esaten.

Gripearen txertoa aipatzen dute, baina balio ote du? Batzuk esaten dute ez duela balio... Nire ustez garbiago esan beharko lukete dena eta ez hain alarmistak izan. Arazoa Baldin badago neurriak har ditzatela eta ez baldin badago ezer esan dezatela ez dagoela ezer.

Toñi / www.goiena.net

NEURRIZ KANPOKOA DA BATZUEN BELDURRA

Komunikabideetan besterik ez dago, baina ni lasai nago. Hona iristen bada hartuko ditugu neurriak, bai guk eta bai erakundeek ere. Hori espero dut behintzat.

Uste dut neurriz kanpoko delatza gizaratean dagoen beldurra. Horretan garrantzi handia daukate medioek.

Goiza / www.goiena.net

BEHI EROENA BEZALAKO FANTASIA IZAN DAITEKE

Bai, arduratzen nau. Arriskua baldin badago ezingo dugu oilaskorik jan. Nik behintzat kontu hau zabaldu zenetik ez dut jan.

Agian behi eroen antzeko fantasiaren bat da, baina badaezpada ere ez dut jan oilaskorik.

Gripe hori hona iristen bada neurriak hartuko ditugu, baina oraingoz ikusi egin behar.

Tom / www.goiena.net

LARRIA DA, DENOK GAIXOTU GAITEZKE

Ni oso arduratuta nago. Ez dut uste gezurretan ibiliko direnik gripea dagoela esaten. Denok gaixotu gaitezke eta oso larria izan daiteke. Erakundeek, teknikoek

edo dena delakoek lehenbailehen konpondu behar dute.

Vic lang / www.goiena.net

TXERTOA ATERAZ GERO JARRIKO NUKE

Askok arduratzen nau hegaztien gripeak. Egunkarian irakurri dut adituak larrituta dabiltzala eta neu ere larritu egin naute. Arnasten dugun airean dagoela esaten dute. Zer egin genezake? Ea txertoa ateratzen duten eta jarriko nuke.

Vane / www.goiena.net

GOBERNUEK ASMATU DUTEN GEZURRA DA

Benetan sinisten duzue? Nire ustez iruzur bat da gobernuek asmatu dutena. Horrela, gu hegaztien gripeaz pentsatzen ari garela, beldurrak airean, bitartean gobernuak direnak eta ez direnak egingo dituzte. Ez diezagutela gezurrik esan!

Timua / www.goiena.net

ARAZO LARRIA IZAN DAITEKE

Hegaztietatik pertsonetara pasatu baldin badaiteke arazo larria izango da. Nik ez dut uste gezurra denik, bestela medikuak eta ez lirateke hor ibiliko.

Badaezpada ere gripearen aurkako txertoa hartuko dut.

Mikel / www.goiena.net

www.goiena.net

Arduratzen zaitu hegaztien gripeak? Nolabaiteko neurriak hartu duzu?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goiena.net webgunera

Halaxe erantzun digute

Gidari berriei gauez gidatzea debekatzekotan dira, gaueko istripuen %18 direlako. Zer deritzozu



ANDONI NARBAIZA | MAPFRE ASEGURU ETXEA

Ez da irtenbidea. Gaueko istripu gehienak 18-30 urtekoen artean izaten dira, gidari nobela izan edo ez. Taxi gidarien tarifak adinaren arabera egokitu beharko lituzkete asteburuetakoa gauetan eta zerbizua gehitu; taxistei abantaila fiskalak edo autonomoendako baldintza bereziak eskainiz.



IBAN PEÑAKOBA | PEÑAKOBA AUTOESKOLA

Horrela plazaratuta, erabat kontra nago. Nire ustez, arazoaren parte bat baino ez da hori eta ez lukete lortuko nahi dutena. Gainera, zer, gidari berriei bakarrik? Diskriminazioa da hori. Arazoa hori baino konplexuagoa da eta bestelako neurri asko hartu beharko dira hori baino lehen.



MARIO ARNALDO | GIDARIEN EUROPAKO ELKARTEA

Erabat kontra gaude. Ez da bate-re errealista; gauzatzeko zaila da. Ez da egia lehenengo urtean istripu gehiago egoten denik: 2004an, lehenengo urteko gidariak 2.701 istripu izan zituzten; 2-3 urte artekoak, 4.799. Errepideak txukuntzea eta argiztapena ona izatea irtenbide egokiagoak lirateke.



JANIRE URBIETA | GIDA BAIMENA ATERATZEN DABIL

Gehiegizkoa iruditzen zait neurri hori hartzea gidari berriei. Azken baten, gauez istripuak edozein gidaririk izan ditzake.

Nire ustez, neurri diskriminatorioa da gidari nobelei bakarrik aplikatzea erabakitzen baldin badute.

Egunkarietako harribitxiak

AIZKORRI, EAE-KO BIGARREN PARKE NATURAL HANDIENA

Aizkorri-Aratz EAEko bigarren parke natural handiena izango da urtarriletik aurrera, 16.000 hektarearekin. Izan ere, datozen hilabeteetan onartuko du Jaurlaritzak Natura Baliabideen Ordenazio Plana eta berehala parke natural izendatuko dute.

'El Diario Vasco'
2005-10-30



AURREAKORDIOA, ORAINGOZ

Euskal Y-aren egitasmoaren blokeo historikoa gainditzen hasia da EAJren eta PSOEn arteko negoziazioei esker, baina alde bien arteko ituna sinatu arte auzia ez dela konponduko ohartarazi dute jeltzaleek. Euskal Y-aren auzian lortu den akordio apurrenetako bat urriaren 20an lortu zen, ia hogeitako desadostasunen ondoren. Egun hartan ezagutarazi zuten Espainiako gobernuak (PSOE)

eta Eusko Jaurlaritzako kide nagusiak (EAJ) ados zirela proiektuaren ardatz nagusietan, Espainiako aurrekontuei buruzko negoziaketaren testuinguruaren barruan. Baina oraindik ez dago akordiorik, aurreakordioa, baizik. Hori ardatz hartuta eta hainbat lagunen iritziarekin erreportajea osatu zuen atzo **Berriak**.

'Berria'
2005-10-30



Tira, tira...



- Medikuek diote mutila izango dela; hortaz, ondorengotzak ekar dezakeen polemikaz libratu egin gara.

- Primeran! Erditzea sexu aldaketarako ebakuntza bezain ondo joatea besterik ez dugu behar.

Ripa 'Deia' | 2005-X-30

Egunkarietan irakurri dugu

'Gara'

PSE-EE-REN V. KONGRESUA

"Euskadin aro berri baten atarian gaude la sinistuta nago. Eta ez dut arinkeriaz berba egiten. Askotan amestu dugun atari horretan gaude, non askatasun osoz biziko garen gure lagun eta senitartekoez gozatuz. (...) Bakea, normalizazioa eta elkarbizitzeko marko berria lortzeko bideaz dihardut berba egiten".

Patxi Lopez
2005-10-30

'Berria'

KATALUNIako ESTATUTUA

"Ideologia independentista, subiranoa eta errepublikanoa dugu. Katalanismo politikoaren ekimen bateratua apur ez dadin egingo dugu lan. Baina Espainiako ezkerrek gure argudioak entzun ez edo iruzur egiten badigu, testua erretiratuko dugu. Ea noraino dagoen prest Espainiako ezkerria katalanismo politikoari atea kolpetik ixteko".

Joan Tarda
2005-10-30

'Deia'

HEGAZTIEN GRIPEA

"Europako hegoaldeko hegaztietan gerta daitezke birus fokuk, nire ustez. Eta horrek oso inpaktu handia eragin dezake. Agerrialdiak Kroazian, Errusian... dauden bitartean jendea ez da gehiegi larritzen. Baina ikusi dituzue erreakzioak Grezian agertu zenean? Gerta daiteke, eta arazoa gerturatzeko dela ikusita...".

Juan Jose Badiola
2005-10-30


'El Mundo'

EAJ-REN AGIRIA

"Subjektu nazionala, lurraldetasuna eta erabakitze eskubidea bezalako osagaiak ditu EAJren proposamenak; erreflexio baliagarriak dira gatazka gainditzeko. Guk Anoetan aurkeztu genuen bi mahaien metodologia bera proposatu du EAJK. Hori kontuan hartuta, Batasunak eskua luzatzen dio EAJri".

Arnaldo Otegi
2005-10-30

Zorroztailea



Diego eta Fidel

"Niretzako, komandantea Jaungoikoa da" esan zuen El Pelusak; "Maradona kirolaren Che-a da" adierazi zuen buruzagi komunistak. Ondoren, Bush kritikatu zuten: "nire uste apalean, hiltzaile hutsa da", aipatu zuen Maradonak; "gerraren gizona" gehitu zuen Castrok (...). Hiru ordu eta erdiz jardun zuten Castrok eta Maradonak, joan den ostegunean, Kubako telebistan.

'El País' | 2005-10-29

diogu, laguntasun arriskutsuak barne.

Fidel Castroren oliba koloreko uniformeak eta bere diskurtso amaigabeek, aldiz, antzinako xarma galdu dute dagoneko eta, horrexegatik, arma propagandistiko guztiak erabili behar ditu bere errejimenaren aldeko atxikimendua eskuratzeko. Izan ere, nahiko lan izango du bere burua zuritzeko, azken urteetan hartutako erabakiak (fusilamenduak, gero eta preso politiko gehiago) kontuan hartuz gero.

Guztion gogoan gelditu da Maradonak, 1986ko Mexikoko Munduko Txapelketan, Ingaltarrari eskuaz sartutako gola. "Jaungoikoaren eskua" azaldu zuen orduan Argentinako 10ak. Fidel Castro Jaungoikoa bada, orain bai, orain ulertzen dugu fabore-truke hau.

Juan Luis Azkarate

Ez dakigu nondik datorren Diegoren eta Fidelen arteko laguntasuna, baina Antonio Gades Dantzaria hil zenetik, Diego Armando Maradona Fidel Castroren jarraitzaile zintzoenetako bat dugu. Diego Armando Maradona (ikusgarria zer itxura ona daukan orain, urdaila txikitu ziotenetik) heroi herrikoien rola ederki ari da betetzen, gero eta sarriago, bere agerpen publikoetan.

Europa dekadentea izan zen, nonbait, bere gainbeheraren erruduna eta orain ave fenixaren antzera itzuli da bere etxera, Hego Amerika: osasuntsu zein berritsu, ezkerren balore tradizionalak defendatuz, gainera. Sekula izan den futbolariarik onena izanda, kirol hau maite dugunok dena barkatzen

"Antonio Gades hil zenetik, Diego Armando Maradona Fidel Castroren jarraitzaile zintzoenetako bat dugu"

"Sekula izan den futbolariarik onena izanda, kirol hau maite dugunok dena barkatzen diogu. Laguntasun arriskutsuak barne"

KIROLA

- Verkol Aloñak 30-24 galdu du denboraldiko lehenengo neurketa | 18
- Mugarri Alkesakoek 77-84 irabazi dute Arrigorriagan | 19



Leire Agirre
eskalatzaile
azpeitiarrarekin
jardun dugu azken
txapelketetz | 21

FUTBOLEKO PREFERENTE MAILAKO TALDEAK

MONDRA

2-0

TOURING

Mondra | Oier, Andoni Azpiazu, Illart, Alarcia, Laspiur, Mercader, Loiti (Muxi, 56. min.), Keixi (Ekaitz, 79. min.), Aritz Bereziartua (Julen, 64. min.), Iker Lopez (Julen, 69. min.) eta Josu (Kepa Barbarias, 83. min.).

Touring | Alain, Iraitz (Josu, 75. min.), Mikel (Joseba, 68. min.), Iñigo, Gaizka, Lander, L. Ferrero (Arkaitz, 68. min.), Raul, Aitor, Eneko eta Ekaitz.

Golak | 1-0, Iker Laspiur (30. min.), 2-0, Josu Zubizaray (57. min.).

Epailea | Ezkurdi jauna. Kaskar aritu zen. Txartelak eta faltak adierazterakoan ez zituen beti irizpide berak jarraitu.

Bestelakoak | Ohiko ikusle kopurua Atxabalpen. Neurketa hasi aurretik minutu bateko isilunea egin zuten zuzendari-tzako Iñaki Vegaren amaren omenez.

Bikain

Iker Lopez

Bikain aritu zen neurketaren lehen zatian. Jokaldi arriskutsu bat baino gehiago sortzen ikusi genuen. Txaloak jaso zituen futbol zelaitik erretiratzeko.

Kaskar

Epailea

Francisco Javier Ezkurdi jauna kaskar aritu zen. Arrazoirik gabe txartel askotxo atera zituen. Faltak adierazterakoan ere ez zituen beti irizpide berak jarraitu.

Esandakoak

“Gaur argi gelditu da inor ez dela ezinbestekoa taldean. Baloia jabe izan gara eta aprobe txatu egin ditugu aukerak”.

IBAN GARAI “MUXI” |
MONDRAKO JOKALARIA

“Oso pozik nago taldeak emandako itxurarekin. Baja asko genituen, baina jokalaria ondo aritu dira eta irabazi egin dugu”.

JOSE LUIS AZKARATE |
MONDRAKO PRESIDENTEA



AITOR LIZARRALDE

Iker Lopez ondo aritu zen. Ez zuen golik egin, baina taldeak sartu zituen bietan izan zuen zerikusia

FUTBOLA | PARTIDU ONA EGIN ZUEN MONDRAK ZAPATUAN

Baloia jabe izan ziren norgehiagoka guztian zehar

Mondrak itxura ona eman zuen Errenteriako Touring taldearen aurka eta aurre egin zien Alzola, Ruben, Ekain eta Gotzonen bajei

Larraitz Zeberio

Ondo aritu ziren Igor Gordobilen mutilak Errenteriako Touring taldearen aurka. Talde orekatua, antolatua eta adoretua ikusi genuen Atxabalpen.

Kezka zen Atxabalpen neurketa hasi aurretik. Hasierako hamaikakoan ohikoak izaten diren bizpahiru jokalarik baxa ziren zapatuan, eta taldeak nola erantzun ote zuen zalantza nagusia harmailetan jarraitzaileen artean.

Partidu hasieratik eman zuen itxura ona Mondrak. Errenteriako taldeak bloke oso erasotzailea izatearen ospea dauka. Atxabalpen, ordea, ezer gutxi eskaini zuten eta partidu berrantzarra egin zuten.

Atera egindako lehenengo funtsezko jaurtiketa Mondrak egin zuen. Ondotik beste hiruzpalau aukera sortu zituzten Gordobilen mutilek Touring-en atea zulatzeke. Ez zen zorterik egon.

Lehen gola 30. minutura arte iritsi. zen Iker Laspiur eta Iker

Lopez artean egin zuten. Zelai erditik Lopez pasatu zion baloia Laspiurrek. Aurreratu eta berriz jaso zuen baloia Laspiurrek. Aukera horretan, ate aurrean zen eta ez zuen hutsik egin.

Lehen zati osoan lan bikaina egin zuten aurrealdean Iker Lopezek, Aritz Bereziartuak, Illart Etxeberriak eta Josu Zubikaraik.

JOKO ONA AMAIERARA ARTE
Touring berdinketaren bila irten zen bigarren zatian, baina min gutxi egin zioten Errenteriako Mondrari.

Lehen zatian baina, aukera gehiago izan zituzten Touring-ekoek. Ate aurrean ordea ona izan zen Oier Zabaletaren lana.

Bigarren zatia hasi eta hamar minutura egin zuen Mondrak bigarren gola. Josuk egin zuen Iker Lopezek baloia aukeran jarrita. Bost aldaketa egin zituzten Igor Gordobilen bigarren zatian, taldearen joko maila ez jaisteko. Amaiera arte sortu zituzten gol aukerak Mondrak.

Laspiur eta Josu izan ziren Mondrako gogegileak, Lopezen esku-hartzearekin

Bost aldaketa egin zituzten Gordobilen bigarren zatian taldearen joko maila mantentzeko

PREFERENTE MAILA



ANTTON GARMENDIA

Aloña lehenengo zatian atzean sartuta egon zen.

Azken minutuan eskuratu zuen garaipena Aloñak

ANAITASUNA

1-2

ALOÑA MENDI

Anaitasuna | Aranburu, Azkoiti, Juaristi, Perea, Galarza, Elgero (Jausoro, 89. min.), Yarza, Gonzalez, Nuñez (Ibai, 81. min.), Sudupe (Sanchez, 61. min.) eta Elizburu.

Aloña | Elgarresta, Lopez, Olalde (Maiztegi, 77. min.) Elgarresta, Igartua, Barrena (Zubia, 70. min.) Aramendi (Sanchez, 62. min.) Astola, Arregi II (Henry, 81. min.) Arregi I (Astigarraga, 67. min.) eta Idigoras.

Golak: 1-0 Nuñez (40. min.) 1-1 Elgarresta (80. min.) 1-2 Idigoras (92. min.).

Epailea: Manterola jaunak ez zuen aparteko lanik izan eta ondo haritu zen.

Arantzazu Ezkibel

Aloñak 1-2 irabazi zuen Azkoitian Anaitasunaren aurka. Partidu honekin, Aitor Oruetaren taldeak, 5 garaipen daramatza jarraian.

ATZEAN SARTUTA

Lehen zatian jokoa ez zen ona izan. Aloña atzean sartuta egon zen; baloiak lapurtu eta kontraerasoan ateratzea zen oñatiarren estrategia. Modu honetan, Aloñak ez zuen gol aukerarik sortu.

Azkoitiarren aldetik ere, ez zuen aukera garbirik izan. Baloi luzeak jaurti zituzten, baina ez ziren zelai erdiaren jabe egin. Atsedenerako 5 minutu falta zirela, azkoitiarren gola iritsi zen. Anaitasunako atzelari batek pase

sakona egin zion Nuñezi eta honek baloia sareetan sartu zuen.

Bigarren zatian Aloñak estrategia aldatu zuen; jokoa aurreratu eta erasora atera ziren oñatiarrek. Partiduaren jabe egin ziren arren, gol aukera gutxi sortu zituzten. Partidua aurrera zihoan eta berdinketaren gola ez zenez iristen, Aloñak aldaketak egitea erabaki zuen; atzelariak kendu eta aurrelariak atera zituen. Erabaki honek partiduari buelta eman zion.

82. minutuan Elgarrestak banakoa jarri zuen markagailuan eta partiduko denboratik kanpo, Idigorasek Aloñaren 2. gola sartu zuen.

Bitxikeria bezala aipatu behar, Henry jokalaririk boliviarrak debutatu zuela Aloña Mendian.

Aretxabaletako taldeak erraz lortu zuen garaipena

ALLERRU

0-2

UDA

GOLAK BIGARREN ZATIAN

Ez zen golik ikusi lehen zati osoan. Aretxabaletakoak izan ziren baloiaren jabe, baina nahiz eta aukera mordoa sortu ez zuten Allerruko atea zulatzerik izan.

Bigarren zatian egin zituzten bi golak. Lehenengoa Espinosak egin zuen. Epaileak falta adierazi zuen eta horrela etorri zen gola.

Bigarren Juanek egin zuen penaltiz neurketa amaitzeko bost minutu falta zirenean. Pozik dira Aretxabaletakoak eta dagoeneko datorren asteburuko Mondraren aurkako derbian dute buruan.

A.G.

Allerruk ez zion zailtasun handirik jarri zapatuan UDARI. Nahiz eta etxean jokatu joko kaskarra egin zuen eta gol aukera gutxi sortu zituen.

Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAITZAK		SAILKAPENA						
		Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
Zestoa-Real Union	0-1							
Allerru-UDA	0-2							
Mondra-Touring	2-0							
Berio-Pasaia	2-2							
Irun 1902-Orioko	0-0							
Anaitasuna-Aloña Mendi	1-2							
Hondarribia-Idiazabal	2-2							
Trintxerpe-Beti Gazte	3-1							
Hernani-Mutriku	1-0							
Zarautz-Ordizia	0-1							
HURRENGOAK								
Zestoa-Allerru								
UDA-Mondra								
Touring-Berio								
Pasaia-Irun 1902								
Orioko-Anaitasuna								
Aloña Mendi-Hondarribia								
Idiazabal-Trintxerpe								
Beti Gazte-Hernani								
Mutriku-Zarautz								
Ordizia-Real Union								

Lehenengo Erregionala

Bergarak merezitako garaipena eskuratu zuen

BERGARA

4-0

LEGAZPIKO GAZTETXEA

Larraitx Zeberio

Legazpiko gaztetxea taldeari lau gol egin zizkion Bergarak zapatuan. Jarraitzaile ugariarekin etorri ziren legazpiarrek Agorrosinera, baina harmailetatik ezer gutxi egin zezaketzen Josu Zubia-

ren mutilek erakutsitako joko onaren aurrean.

Lehen zatian aukera gehiago sortu zituen Bergarak, baina gola ez zen iritsi 37. minutuan epaileak penaltia adierazi zuen arte. David Cavasek egin zuen jaurtiketa eta baita gola sartu ere.

Berdintzeko ahaleginean hasi ziren orduan buru-belarri Legazpikoak, baina bigarren gola egin zuen orduan David Cavasek. 45. minutuan baloia jaso zuen ate aurrean bakarrik zegoela. Ondo aprobeztatu zuen aukera eta baloia barrura joan zen zuzenezuzenean.

BESTE BI GOL AMAIERAN

Bergarak erasoan jarraitu zuen bigarren zatian eta Legazpikoak pare bat aukera izan zituzten gola egiteko, baina ez zuten emaitza onik lortu.

Bergararren azken bi golak neurketa amaitzeko pare bat minutu falta zirenean iritsi ziren eta bata bestearren atzetik. Imanol Cabanillasek egin zuen lehenengoa Mikel Oterok baloia aukeran jarrita.

Azken gola, Iñaki Corralek sartu zuen 90. minutuan. Bakarrik zegoen ate aurrean eta Cabanillasek pase bikaina egin zion.



AITOR LIZARRALE

David Cavas jokalaririk egin zituen Bergararen lehen bi golak.

Pilota

• LAU T'ERDIKO TXAPELKETA



AITOR LIZARRALDE

Xalاک urduritasunez jokatu zuen; sake asko huts egin zituen.

Xalاک finalerdietarako txartela eskuratu du

Xalاک eta Bengoetxea VI.ak partidu berdindua jokatu zuten arren, Lekuineko pilotaria pasatu da aurrera

Arantzazu Ezkibel

Xalاک 22-17 irabazi zion Bengoetxea VI.ari lau t'erdiko final laurdenetan. Partidu berdindua jokatu zuten, jokoari dagokionez, bi pilotariak.

Hasierako sakea Leitzako pilotariak atera zuen eta lehen tantoa ere berarentzat izan zen. Bengoetxea 1-6 aurreratu zen markagailuan. Baina Xalاک sakea eskuratu zuenean, bere pilota atera zuen eta 7-6 jarri zen aurretik. Xalاکren pilotak min handia eman zion Bengoetxeari, pisu handiagoko pilota zen-eta.

Hemendik aurrera markagailua oso berdinduta egon zen.

URDURITASUNA IZAN ZEN NAGUSI BI PILOTARIENGAN

Urduritasuna zela- eta, huts asko egin zituzten bi pilotariak. Xalاک hiru pasa egin zituen sakez eta

Iparaldekoak 6 tanto egin zituen sakez eta dejadaz, berriz, 2 bakarrik

Bengoetxea ere ez zen fin aritu sakea alde zuenean. Kaiolako txapelketan sakez tanto gehiago egin ohi dira, baina atzokoan, pilotariak ez zuten asmatu. Azkenean 22-17 iparraldeko pilotaria nagusitu zen.

BINAKAKO PARTIDUAK

Bergarako pilotalekuan jokatu-tako beste partiduetan Eugi eta Apeztegia bikotea 22-16 nagusitu zitzaizkien Galartza V.a eta Lasa III.ari. Baleztena eta Urberuagak (gorriz), eta Larralde eta Laskurainek (urdinez), berriz, 18-14 egin zuten, urdinak irabazle.

Areto futbola

• GAZTE MAILAKO NAZIONAL LIGA

Aloñak etxean 0-1 galdu zuen lasartearren aurka

Egubakoitz gauean jende asko hurbildu zen partidua ikustera. Animoak jaso zituzten arren, Aloñak galdu egin zuen

Arantzazu Ezkibel

Aloña Mendik ezin izan zuen garaipena eskuratu egubakoitz gauen jokatu-tako partiduan. Etxean 0-1 galdu zuten oñatiarrak; bi puntuak Lasartera alde egin zuten, beraz.

Aloñak azken orduko lesioei aurre egin behar izan zien. Kantxararutako taldea ez ohi-koa izan arren, maila onean aritu ziren jokalariek. Partidua nahiko berdindua izan zen. Ez talde bat ez bestea, ez zen baloia-aren jabe garbia izan.

AUKERA GUTXI

Partiduan aukera gutxi ikusi ziren. Aloña atzealdean ondo kokatuta egon zen; aipatzekoa

da Axibarrek ate azpian eginko lana. Baina erasora ateratzean, indarra falta izan zitzaion Aloñako jokalariei. Lasarterren defentsa zultzeko gai ez ziren izan oñatiarrak eta atse-denera 0-0 iritsi ziren.

Bigarren zatia hasi bezain laster, Aldazek partiduko gol bakarria sartu zuen. Aloña ahal-egindu zen berdinketaren gola sartzen, baina oso aukera gutxi sortu zituen. Aurrealdean mugimendu falta izugarria izan zuen taldeak.

Amaierarako 5 minutu falta zirela, Aloñako atezainak bi "falta bikoitz" gelditu zituen. Hala ere, ez zuten ezertarako balio izan geldiketa hauek, garaipenak alde egin zien-eta.



AITOR LIZARRALDE

Azken orduko lesioei aurre egin behar izan zien Aloñak.

• GIPUZKOAKO KLUBEN ARTEKO TXAPELKETA BERGARAN



AITOR LIZARRALDE

BERGARAKO PILOTARIAK NAGUSITU ZIREN HIRU PARTIDUETAN

Kadete mailako Aritz Rezustak eta Gorka Irizarrek 15-22 irabazi zioten Ernioko bikoteari. Jarraian, gazte mailako Oier Aldaik eta Jon Larrañagak 9-22 irabazi zieten Eibar-ko pilotariari. Polita eta lehiatua izan zen senior mailako neurketa. Mugurutzeta-Herran bergararrek 20-22 irabazi zieten Altube-Alzola aretxabaletarrei.

• OSINTXUKO GABON SARIA



AITOR LIZARRALDE

14 PARTIDA JOKATU ZIREN ZAPATU ARRATSALDEAN

Txikiak izanagatik serio aritzen dira frontoian Bergarako pilota eskolako ikasle gazteak. Zapatuan Osintxuko Gabon Sariko 14 partidu jokatu ziren bertako frontoian. Infantilak, kimuak eta benjaminak aritu ziren, nor baino nor, bertaratutako guraso eta lagun ugariren aurrean. Urte bukaeran jokatu-tako dira Osintxuko Gabon Sariko finalak.



Debagoieneko kirolariak

Azaroan **ibarreko kirol taldeen** gaineko **GEHIGARRIAK**
Asteleheneko Goienkariarekin



Azaroaren 7an **futbol taldeak** • Azaroaren 14an **eskubaloitaldeak**
Azaroaren 21ean **saskibaloitaldeak** • Azaroaren 28an **pilotariak**



Asteleheneko Goienkaria |
GEHIGARRIAK



Gorde egingo dituzu.

Lau astetan dohan!

Jaso doan Asteleheneko
Goienkaria lau astez
902 36 38 51 telefonora deituta.

Gustukoa baduzu, jasotzen
jarraitu ahal izango duzu
(2006. urteko abendura arte)
36 euro bakarrik ordainduta.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik
egubakoitzera,
09:00etatik
18:30era.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

• LEHENENGO TERRITORIALA

Bigarren zatian eman zuen onena Bergarako taldeak

Donibane Majestik taldeko jokalariek nagusiagoak eta handiagoak ziren



AITOR LIZARRALDE

Mikel Plazaola, 18 zenbakiarekin, oso ondo aritu zen erasoan norgehiagokaren bigarren zatia hasieran.

BERGARA
16-27
DONIBANE MAJESTIK

Bergara | Kapelastegi, Larrañaga (2), Sanchez (3), Mujika (1), Najera (1), Errasti, Ugalde, Uribe, Agirre (3), Pozo, Lenisoro (1), Zabaleta, Ugartetxea (1) eta Plazaola (4).

Donibane Majestik | Karrantza, Gajate (4), Riaño (2), Babace (1), Toquero (9), Etxura, Arroyo (1), Elustondo (6), J.L. Gonzalez (2), Ciganda, Badiola (2), Vicente, I. Gonzalez eta Oiarbide.

Golak bost minuturo: 2-3, 3-5, 3-10, 5-13, 7-15, 8-17, 11-18, 13-20, 13-21, 14-22, 14-26 eta 16-27.

Larraitz Zeberio

Neurketa orekagabea izan zen hasieratik beretik. Nahiz eta amaierako emaitzak beste gauza bat adierazi, Bergarako mutilek nahikoa lan ona egin zuten eurak baino jokalaria nagusiago eta handiagoen aurrean. Esperientzia ere bazuten abantaila Donibane Majestik taldekoek.

LEHEN ZATIA ERABAKIGARRIA
Norgehiagokaren lehen 30 minutuetan lortu zuten Donibanekoek partidua irabazteko besteko aldea.

Bergarakoei gogorra egin zitzaizen aurkariaren defentsa zulatzea. Jaurtiketetan makal aritu ziren eta baloi asko galdu zituzten. Bederatzi goleko aldea egin zuten Donibanekoek.

BIGARREN ZATIAN HOBETO
Bigarren zati hasieran itxura hobea eman zuen Bergarako taldeak. Donibanekoek eraso geladitzen asmatu zuten eta gol ugari sartu zituzten, gehien bat Mikel Plazaolaren eskutik.

Markagailuko kontrako aldea ez zen asko jaitsi, baina Donibanekoek erritmoa jarraitzea lortu zuten etxeok, tarte-

an, Jon Kapelastegi atezainaren lan onari esker.

Bigarren zatiko lehen 20 minutuetan partzial hobeagoa egin zuten Bergarakoek. Joko erritmoa azkartu zuten eta jokaldi interesgarriak egiten ikusi genituen. Ez zen ordea nahikoa izan lehen zatian galdutako aldea berreskuratzeko. Lasai irabazi zuten Donibane Majestik taldeak.

• SENIOR NESKAK

Verkol Aloñak galdu egin du ligako lehen partidua 30-24

EREINTZA

30-24
VERKOL ALOÑA

Arantzazu Ezkibel

Aloñako neskek gaizki hasi dute aurtengo denboraldia. Errenterian 30-24 galdu zuten Ereintzaren aurka. Lehenengo zatia nahiko berdindua izan zen. Aloña atzealdean ondo kokatuta kantxaratu zen. Defentsa ona egin zuten, Ereintzaren erasoak ongi apurtuz. Baina aurrealdean indarra falta izan zitzaizen oñatiarrei. Oso gaizki aritu ziren Aloñako neskek aurrean. Baloia mugitzerako orduan bizitasuna falta izan zitzaizen. Atsedenera 11-8 galtzen iritsi ziren oñatiarrek.

Bigarren zatian, gauzak okerrera joan ziren. Aloñak beherakada handia jasan zuen. Fisikoki puntuan ez daudela antzeman zitzaizen Aloñako neskei. Entrenatzaileak esan digunez, ez dute denboraldiaurrea egin eta hori jarri egiten da.

IDEIARIK GABEKO TALDEA.

Fisikoki Ereintzako neskek askoz ere indartsuago zeuden eta oso erraz apurtzen zuten Aloñaren atzealdea. Baloia atzetik ateraterakoan, oñatiarrek ideiarik gabe zeuden, mugimendua falta zitzaizen. Azkenean ezin izan zuten partidua aurrera atera eta ligako lehen bi puntuak galdu zituzten oñatiarrek.

• 1. TERRITORIALA



ENEKO UGARTE

ARRIKRUTZEK 28-29 IRABAZI ZUEN URNIETAN

Arrikrutzek bi puntu ekarri zituen Urnietatik domeka goizean. Partidua gorabehera askokoa izan zen. Lehenengo zatian Aloña Mendikoek bere joko onena erakutsi zuten. Atsedenean 11-14 irabazten zihoazen Iñigo Aranbururen mutilak. Bigarren zatian, Urnietak aldea murriztea lortu zuen eta Aloña bi gol atzetik jarri zen. Defentsan gaizki aritu ziren Aloñako jokalariek; zulo asko laga zituzten. Azkenean, partidua amaituta zegoela, penaltia adierazi zuten oñatiarren alde eta Rafa Zuluetak ez zuen barkatu, 28-29 irabazi zuten.

• GAZTE MAILAKO MUTILAK



BERGARAKO KIROL TALDEA

24-15 GALDU DU BERGARAK ZUMARRAGAN

Gaizki jokatu dute asteburu honetan Bergarako mutilek. Zumarragako Urola taldea gainetik izan zuten neurketa osoan zehar. Lehen zatian gol gutxi egin zituzten bi taldeek eta atsedenean markagailuak 7-5 emaitza jasotzen zuten. Bigarren zatian Bergarakoek aldatketak egin zituzten defentsan baina ez zen nahikoa izan. Nahiz eta defentsan gauzak zertxobait hobetu, ez zuten erasoan sortutako aukerak aprobetxatzen asmatu. Aldi berean, nabarmentzekoa izan zen Urolako atezainak egindako lan ona.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA
Ereintza-Verkol Aloña 30-24

LEHENENGO TERRITORIALA
Bergara - Donibane Majestik 16-27
Urnietak - Arrikrutz Oñati Kobak 28-29
Ford Mugarri Arrasate Atsedena

BIGARRENGO TERRITORIALA
Arrasate Eskubaloi Atsedena

GAZTE MUTILAK
Gatz Museoa-Jakion - Aloña Atzeratua
Urola - Bergara 24-15

GAZTE NESKAK
Verkol Aloña Atsedena
Arrasate Atsedena
Bergara Atsedena

KADETE MUTILAK
Aloña Mendi - Elgoibar 21-23
Gatz Museoa-Jakion - Legazpi 28-23

• NESKEN BIGARREN MAILA

Ondo hasitako lanak ez zuen emaitza onik ekarri

Javi Corbalek zuzentzen duen taldeak ez du partidu bat bera ere irabazi aurtengo ligan

Corbalen neskek. Defentsan gogor aritu ziren; ez zuten zulo-rik utzi eta baloi asko erreku-peratu zituzten.

Bigarren laurdeneko partziala ez zuten alde izan: 12-20. Hala ere, joko aldetik nahiko ona izan zen. Erasoan izan zituzten zailtasunak. Baloia mugitzera-ko orduan ondo aritu arren, jaurtiketetan ez ziren fin aritu.

BIGARREN ZATIAN OKERRERA EGIN ZUTEN

Atsedenearen ostean gauzak guztiz txarto jarri ziren Eskoriatzako taldearentzat. Hirugarren laurdenean joko oso txarra egin zuten eskoriatzarrek. Defentsan zulo asko utzi zituzten eta Barakaldokoek aukera hauek aprobetxatu zituzten markagailuan aldea ateratzeko. Partziala 5-13koa izan zen. Erasoan ere oso gaizki aritu ziren. Sare azpiko jaurtiketa asko huts egin eta erre-bote gutxi hartu zituzten.

Azken laurdenean partidua pixka bat txukuntzea lortu zuten arren, eskoriatzakoek ez zuten irabaztea lortu. Azkenean 11 puntuko aldea atera zion Barakaldoko taldeak Eskoriatzakoari.



AITOR LIZARRALDE

Partidu amaierara fisikoki gaizki iritsi ziren eskoriatzarrak.

ESKORIATZAKOAK FISIKOKI EZ DAUDE ONENEAN

Barakaldo talde indartsuagoa izango zela uste zuten Eskoriatzako jokalariek eta entrenatzaileak, baina bizkaitarrek ez zuten aparteko ezer egin. Lehenengo laurdenean nola joan zen ikusita ligako lehen garaipena eskuratuko zutela ematen zuten arren, partidua gaizki amaitu zen etxe-

koentzat. Azkenean Eskoriatzako neskei indarra falta izan zitzaion. Partidua ondo hasi zuten arren, amaierarako guztiz ahuldu ziren eskoriatzarrak.

Garbi dago fisikoki ez daudela onenean. Ligako beste partiduetan gertatu bezala, partidu amaierara ez dira puntu onenean iristen. Fisikoki hobetu beharra dute ligan lan txukuna egiteko.

ESKORIATZA

47-58

BARAKALDO

Eskoriatza | Serrano (4), Laborda (5), Caceres, Balzategi, Murillo (7), Usabiaga (7), Soriano (2), Exposito (15), Etxeberria (5), Agirrezabalaga (2) eta Alarcia.

Barakaldo | Ramos (12), Valdenebro (8), Caño (4), Landuela (7), García, Vazquez, Rozados, García (4), Zorrilla, Barrutia (12), Sanz eta Vazquez (11).

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdenean 13-10. Bigarren laurdenean 25-30. Hirugarren laurdenean 30-43. laugarren laurdenean 47-58.

Arantzazu Ezkibel

Zapatu arratsaldean ligako lehen garaipena eskuratuko zutela ematen zuten arren, azkenean bi puntuak Barakaldora joan ziren. Eskoriatzako neskek ondo hasi zuten partidua; lehenengo laurdenean 13-10eko partziala egin zuten euren alde. Joko ona erakutsi zuten Javi

3. laurdenean eskoriatzarrek behera egin zuten; 5-13ko partziala izan zuten aurka

• GAZTE MAILA

Kostata irabazi zuen Mugarrik

MUGARRI

57-41

ARANETA

Mugarri | Hernandez (19), Cenciaga (16), Ander Cenciaga (6), Rodriguez (7), Aranzburu (2), Atxa (2), Merino (5), Some, Arriolabengoa eta Briñas.

Araneta | Gantxegi (7), Fernandez (12), Aizpurua (9), Galarraga (6), Arazkonaga (3), Elizburu (2), Iruretagoiena (2), Boli-bar, Garcia eta Moreno.

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdenean 4-20. Bigarren laurdenean 18-24. Hirugarren laurdenean 43-35. Laugarren laurdenean 57-41.

Arantzazu Ezkibel

Gaizki hasi arren, Arrasate Mugarri taldeak 57-41 irabazi zuen zapatu goizean Musakolan jokaturako derbia.

Lehenengo laurdenean 4-20ko aldeaz irabazten hasi ziren bergararrak. Bigarren laurdenean ere ez ziren gauzak asko aldatu eta 18-24ko aldeaz zihoan irabazten talde mahoneroa.

HIRUGARREN LAURDENA ERABAKIGARRIA IZAN ZEN

Arrasateko jokalariek defentsan nahiko gaizki aritu ziren. Hutsune asko laga zituzten eta



AITOR LIZARRALDE

Bigarren zatian partiduari buelta eman zioten Mugarrikoek.

ez zuten baloirik erreku-peratu. Erasoan, bat-bateko jokoa egin zuten eta honek ez zien emaitza onik eman. Jaurtiketa asko ere kanpora joan ziren

3. laurdenean Arrasatekoak partiduari buelta emateko gai

izan ziren. Epailak falta pertsonala gehi falta teknikoak adierazi zuten eta arrasatearrak markagailuan aurretik jarri ziren. Hiruko jaurtiketa asko saskiratu zituzten Arrasatekoek eta azkenean irabazi egin zuten.

• LEHENENGO MAILA

Beste garaipen garrantzitsu bat Mugarri Alkesa taldearendako

PADURA

77-84

MUGARRI ALKESA

A.G.

Pozik itzuli dira Gorka Zurutu-zaren mutilak Arrigorriagatik. Padura talde bizkaitarra ez dago etxean galtzera ohituta, baina Arrasatekoek mendean hartu zituzten azkenean.

Norgehiagoka gogorra izan zen bi taldeendako. Arrasatekoek hiru baja espero zituzten partidu honetarako, Ander Mallabiabarena, Beñat Barberena eta Mikel Biain. Azkenean, ordea, Mikel kantxan izan zen eta garrantzitsua izan zen bere parte-hartzea neurketaren azken segundoetan.

GORA EGIN ZUTEN TALDEAK

Lehen laurdenean bizkaitarren alde amaitu zen. Zorionez, ondo erantzun zuten Arrasatekoek hurrengo minutuetan eta atsedenaldirako aurretik ziren, 38-40. Ondo aritu ziren kontraerasoan eta garrantzitsuak izan ziren Gamarrak eta Quintanak egindako hiruko saskiratzeak.

Hamahiru puntuko abantaila hartzea lortu zuten Arrasatekoek, baina Padura gogor saiatu zen eta aldea 3 puntura murriztea lortu zuen. Arrasatekoek, orduan, jokoa eten eta Mikel Biainendako jokaldia antolatu zuten. 30 segunduren faltan saskiratze bikaina egin zuen Mikelek sei metroko distantziatik.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN MAILA

Padura - Mugarri Alkesa 77-84

NESKEN BIGARREN MAILA

Eskoriatza - Barakaldo 47-58

SENIOR MUTILAK

Candy B Atsedena

Aloña-Mendi Atsedena

SENIOR NESKAK

Aloña Mendi Atsedena

GAZTE MUTILAK

Mugarri Alkesa Arrasate - Araneta 57-41

Aloña-Mendi Atsedena

KADETE MUTILAK

Mugarri Alkesa Arrasate Atsedena

Aloña-Mendi Atsedena

KADETE NESKAK

Bergara Atsedena

Aloña-Mendi Atsedena

IÑAKI SAN JOSE | BERGARAKO FUTBOL TALDEKO PRESIDENTEA

"Mendilibarren ezintasun aurpegiak dena esaten du"

Xabier Urtzelai

Larri behar du Athleticen entrenatzaileak.


Bai, norgehiagoka eta gero zeukan aurpegiak dena esaten zuen. Partiduan zehar ere ezintasunezko keinuak egin zituen. Zuzendaritzan eztabaida handia egongo da, eta sentitzen dut, baina uste dut beste entrenatzaile bat jartzea dela irtenbide onena. **Zazpi urtean gauzatzeko proiektuarekin etorri zen Mendilibar, eta zazpigarren jardunaldia baino lehen dago mehatxupean.**

Horrela da bai. Futbolearen emaitzek agintzen dute, eta presioa igarri egiten da. Dena dela, Euskal Herriaren gauza arraroak egiten ditugu entrenatzaileekin; hemengoak direnak askoz ere gutxiago baloratzen ditugu-eta. Realetik nola bidali zuten Irureta? Azkargorta ere adibide argia da. Hemen ez du talderik aurkitu, eta non eta Real Madril-en dabil, maila txikiak taldeekin.

Zaparrada ona bota du Bartzelona aldean.

Ez nuke horrenbeste esango. Kovacevic barik, eta lehenengo zatian bi jokalarik min hartuta... Euskadi Irratian entzun dut jokalariek moralki igarriko dutela porrot hori. Nik ez dut uste hori horrela denik. Realekoek argi daukate Bartzelonakoa gerta daitekeen zerbait dela, eta seguru Osasunaren kontra beste aurpegi bat erakutsiko dutela.

Betis mendean hartuta ere, hamar egun daramatza Ronaldok min hartuta, eta Madril aldean zelan botatzen duten faltan.



XU.

Taldea berarendako jokatzera ohituta dagoelako, eta joan den astean Riazorren ikusi zen hori argi. Ronaldok azken metroetan ez du barkatzen, ez dago hori geldituko duenik. Fitxaketa berriei errua botatzea ez da bidezkoa.

"Nire ustez talde handiek oraindik ez dute daukaten gaitasuna erakutsi"

Txapelketa amaieran sufrizera ohituta dauden Osasuna eta Getafe daude aurrealdean.

Bai, baina ez dut uste hori denik euren lekua. Bi talde horiek daude aurrean gainontzeko taldeen artean inork ez duelako daukan benetako gaitasuna erakutsi. Ez Real Madril-ek, ez Bartzelonak... Liga hasieran normala izaten da, baina bi talde horiek ez dituzte euren artean ez ezagutzeko moduko fitxaketak egin. Liga amaieran, baina, seguru aurreko postuetan ibiliko direla.

Harmailatik

Eskerrak Osasunari



Xabier Urtzelai

Bartzelonan ausart. Halaxe zelairatu zen Real Nou Campen, eta baita garesti ordaindu ere. Joan zen astean aurreratu genuen Bartzelonaren zelaian irabazteko ondo egin behar direla gauzak, eta hori esatea ezer gutxi esatea bada ere, atzokoa izan zen baieztapena. European Chelseak du joko zuzenena, baina Bartzelonak moduan ez du inork kontrarioa nekatzen. Lehenengo zatian Alonso eta Prieto min hartuta, eta Nihat-ek gol aukera garbia huts egin. Hortik aurrerakoa...

Banakoa, baina berdin. Baikorra izanda, Athleticen puntu bat erdietsi zuen San Mamesen. Taldeak emandako irudia, baina, aurreko jardunaldietakoa izan zen. Gol aukerarik ez, eta bigarren zatian behera nabarmen. Prestaketa fisikoan asmatu ez, ala presioaren eragina?

Jokalariei norbaitek esan beharko lieke 90 minutu presioa ahazteko. Baina esatea da errazena.

Lider. Halaxe jarraituko du Osasunak, lehenengo postuan. Espanyol gauzak argiago zituela zelairatu zen Sadarren, baina Osasunak egin zituen norgehiagokako golak, Kameniren kontura izan bazen ere. Merezki duten hor egotea? Galdetzea ere...

Ez aurrera eta ez atzera. Athleticen egoeraren gainean gabiltza guztiok berba eta berba, kontuan hartu barik gasteiztarrak ez daudela askoz ere hobeto. Min gutxi egiteko gaitasuna erakutsi zuen Cadizek Mendizorrotzan, baina horrela ere ez (0-0).

Gola. Ezin amaitu lerro hauek Valentzia taldeko Albeldak Racing-i egindako gola aipatu barik. Hori da baloiari bete-betean ematea.



Javier Aguirre

Osasuna egiten dabilen lana kontuan hartuta, Aguirrek zaleei eskaini gura izan die taldearen hasiera ona: "Askotan ordaindu dute sarrera, eta taldea galtzen ikusi; goza dezatela orain".



Athletic

Askoren esanetan, jokalarik batzuk Mendilibarren kontra daudelako dago Athletic horrela. Esango nuke Celtaren kontra zeukatena eman zutela guztiok, baina ezintasuna kontrario gogorra da.

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

Valentzia-Racing	1-1
Betis-R.Madril	0-2
Zaragoza-Malaga	1-1
Deportivo-Getafe	1-0
Bartzelona-Reala	5-0
Athletic-Celta	1-1
Alaves-Cadiz	0-0
Mallorca-Sevilla	1-1
At.Madril-Vila-real	1-1
Osasuna-Espanyol	2-0

HURRENGOAK

Vila-real-Valentzia
Sevilla-At. Madril
Cadiz-Mallorca
Celta-Alaves
Espanyol-Athletic
Reala-Osasuna
Getafe-Bartzelona
Malaga-Deportivo
R. Madril-Zaragoza
Racing-Betis

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Osasuna	21	10	7	31	0	14	10
2. Bartzelona	19	10	5	1	4	24	10
3. Real Madril	18	10	6	4	0	21	11
4. Getafe	17	10	5	3	2	16	13
5. Celta	17	10	5	3	2	12	10
6. Vila-real	16	10	4	2	4	17	12
7. Sevilla	16	10	4	2	4	10	6
8. Deportivo	16	10	4	2	4	13	11
9. Valentzia	16	10	4	2	4	15	14
10. Reala	16	10	5	4	1	15	19
11. Atletico	14	10	4	4	2	11	10
12. Cadiz	13	10	3	3	4	7	9
13. Malaga	11	10	3	5	2	14	13
14. Zaragoza	10	10	1	2	7	12	14
15. Racing	10	10	2	4	4	5	7
16. Mallorca	9	10	2	5	3	9	18
17. Betis	9	10	2	5	3	7	17
18. Alaves	8	10	1	4	5	8	14
19. Espanyol	8	10	2	6	2	6	13
20. Athletic	6	10	1	6	3	10	15




Kiniela

KINIELA

1. Valentzia-Racing	X
2. Zaragoza-Malaga	X
3. Deportivo-Getafe	1
4. Bartzelona-Reala	1
5. Athletic-Celta	X
6. Alaves-Cadiz	X
7. Mallorca-Sevilla	X
8. Atletico-Vila-real	X
9. Osasuna-Espanyol	1
10. Xerez-Valladolid	X
11. Hercules-Sporting	1
12. Murtzia Hiria-Tenerife	1
13. Albacete-Lleida	1
14. Almeria-Levante	1
15. Betis-Real Madril	2

Euskal taldeen asteko hamaikakoa



Leire Agirre eskalatzaile azpeitiarra Bergaran izan zen eguenean. Jardun elkarteak antolatutako diapositiba emanaldia eskaini zuen Pol-Polen.

Bukatu berri den Munduko Bulder Kopan seigarren postuan sailkatu da 31 urteko eskalatzailea. Kopa, Birminghamen (Ingalaterra), Moskun (Errusia), Fiera di

Primieron (Italia) eta Friminy (Frantzia) jokatu diren txapelketetan erabaki da. Orain, denboraldia ofizialki bukatuta, atsedena hartzeko ordua iritsi zaio Leireri.

LEIRE AGIRRE | ESKALATZAILEA

"Oñatin egin ditut ibilbide gogorrenak. Erronkak gertu hartzen ditut"

Larraitz Zeberio

Munduko Bulder Kopan 6. sailkatu zara. Pozik?

Noski. Lau finaletan egon naiz eta erregularitasun baten emaitza da hori. Finalera hamabi lagun pasatzen dira eta akats txikiena nahikoa da kanpoan gelditzeko. **Denboraldi erdian lesioa izan zenuen. Gogorra izango zen hura?**

Horrelako gauzak gutxien espero dituzunean etortzen dira. Entrenatzen ari nintzela belau-neko ligamenduetan zaintiratu egin nuen. Abuztua zen, denboraldi erdia, eta animoz asko jaitsi nintzen. Bi txapelketa gelditzen zitzaizkidan denboraldia amaitzeko eta horretan zentratu nintzen. Horrelakoak txoke handia dira. Helburuak berriz planteatu behar dituzu. Baina kontziente izan behar dugu horrelakoak ere gerta daitezkeela.

Frantziarrak eta errusiarrak dira orain nagusi kirol honetan?

Batik bat frantziarrak. Tradizio handia dago eta asko bultzatzen dute eskalada. Harrobi handia dago eta maila altua dute.

Eskalada tradizio gehiago dago herrialde hauetan gurean baino?

Askoz ere gehiago. Munduko proban, esaterako, ikusle bakoitzak 10 euroko sarrera ordaindu

zuen. Hemen ez da oraindik horrelakorik inoiz lortu. Tradizio handia dago eta jendea prest dago prezio hori ordaintzeko Munduko Kopa baten finala ikusteko. Hemen jendeak ez daki Munduko Kopa zer den. Informazio falta dago.

Gaur (eguena) diapositiba emanaldiarekin etorri zara Bergarara. Gustuko dituzu jendaurreko agerpenak?

Ez nabil gaizki horrelakoetan. Eskaladari lotutako lan bat da. Tokatzen direnean egiten ditut.

Jakin dudanez zure asmoen artean Araotzen (Oñati) daogon 8b/+ zailtasunezko ibilbide bat egitea dago.

Nire ibilbide gogorrenak Oñatin egin ditut. 1999an ibilbide gogor bat egin nuen Araotzen, 8b/+ mailakoa. Handik aurrera urtero egin ditut ibilbide gogorrak. Urtero erronka berriak izatea ona da.

Araotz harkaitz ona da entrenatzeko, eskalatzeko eta disfrutatzeko. Gero eta ezagunagoa da aldizkari espezializatuaren agertu delako. Oso erakargarriak dira bertan egin daitezkeen ibilbideak.

Tematia zara amaitzea lortzen ez dituzun ibilbideekin?

Ez. Zergatik kale egiten dudan aztertzea gustatzen zait. Hori da hobetzen joateko bidea.

Non egin dituzu ibilbiderik gogorrenak? (Maroko, Alemania, AEB...)?



Leire Agirrek oporrak hartuko ditu azaroan. Urte berriaren hasieran finkatuko ditu datorren denboraldiko helburuak.

Zalantzarik gabe hemen eskalatu ditut ibilbide gogorrenak. Proiektu gogorrak etxetik gertu badaude hobeto. Ibili naiz atzerrian, baina, adibidez, bi 8b/+ ibilbide egin ditut eta biak Oñatin. **Zein helburu dituzu datorren urterako?**

Urtarrila-otsailean ikusiko dut hori. Orduan prestatuko dugu denboraldi berria. Motibazioaren arabera prestatuko dut datorren denboraldia. Bakoitzaren asmoen eta gaitasunen arabera planteatu behar dira gauzak.

ASPEPELOTA Goi mailako pilota ikuskizuna

Chafee - Nalda III .a / Berasaluze IX .a - Elkoro

Gonzalez - Pascual / Mtz de Irujo - Goñi III .a

Berraondo - Zubieta / Larralde - Arroyo

- **Eguna:** martitzena, azaroaren 1a.
- **Ordua:** 17:00etan.
- **Lekua:** Bergarako Udal Pilotalekuan.



Erreserbak baita interneten ere: www.aspepelota.com

Diapositiba emanaldian bere ibilbidea erakutsi zuen

Hogei lagundik gora elkartu ziren eguenean Jardun euskara elkarteak antolatuta Leire Agirrek Pol-Polen eskainitako diapositiba emanaldian.

Bertan jakin genuen Leire Azpeitia eta Azkoitia artean dagoen Izarraitz azpiko harrobi batean hasi zela eskalatzeko. 15 bat urte zituen orduan.

Oñatiko Araotz auzoan ere asko ibilitakoa da Leire. "Entrenamendu asko egin ditut bertan, baita mugimendu asko landu ere. Zortzi ibilbide egin ditut bertan", esan zuen azpeitiarrak.



KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- 'Aupa Etxebeste!' filmak Bergarako Udal pilotalekua bete du asteburuan | 26
- Emakumeen gaineko zinema zikloa hasiko da egunean Arrasaten | 27

Gabonetako postal digitalik onena 300 euroekin sarituko dute Eskoriatzan | 27

SEÑOR NO ARRASATEN



AITOR LIZARRALDE

Azken urteetan kide aldaketak jasan ditu Donostiako Señor No taldeak.

PUNK-ROCK | EUROPA ZEHAR BIRAN IBILI ETA GERO, ARRASATEN JO ZUTEN ZAPATUAN DONOSTIARREK

Denbora ez da alferrik pasatzen eta rock&rollean ere urteak lagun dira

Señor No taldekoek irailean egin beharreko kontzertua bertan behera utzi behar izan zuten eta zapatu gauean izan zuten Arrasateko jarraitzaileekin zeukaten zorra kitatzeko aukera

Jon Berezibar

Ukaziorako beta gutxi uzten dute Señor Nokoen zuzenean. Rock&rolla zentzurik trinkoenean, zuzeneko indartsua eta kontzesio gutxi. Hamarkada egin du dagoeneko taldeak oholtzetan zein errepidean eta azken urteetan taldekideen aldaketak izan badituzte ere, Xabik, laukotearen buru eta hasierako kide bakarrak, asmatu du barkuaren leloari sendo eusten. Taldeak azken lehorreratzea Arrasateko 3.60 aretoan egin zuten zapatuan, Europa erdialdetik tourra egin osten. Honela, Arrasaten zeukaten zorra kentzea lortu zuten, azken kontzertua, bertan behera laga behar izan zuten-eta Gaz-

tetxean. Taldeak, bestalde, aurtuen kaleratu du disko berria, moldaera akustikoan, Donostiako Bukowsky tabernan zuzenean grabatu zutena. Zapatuan aldiz, guztiz elektrikoa eta bizia izan zen donostiarren emanaldia.

JENDE GUTXI BAINA ZALEAK
Taldearen gidari lanaz jabetuta, Xabi etengabe ibili zen gau guztian ikusleei harengatik egiten. Jarraitzaileak, ez larregi, baina buru-belarri ibili ziren joaldi guztian. Izan ere, Señor Nok, urteetako lanaren sari, gero eta itzal handiagoa du euskal mugetatik kanpo ere. Alabaina, ez zuten jende larregi erakarri, ez behintzat 3.60 aretoa betetzeko lain. Lagun gutxi bada, baina zalan-

tza barik Señor Nok egiten dakiena inork baino hobeto balioesten dutenak.

Rock&roll bandaren papera, gainera, modu sinesgarrian bete

Kide aldaketen gainetik, modu sinesgarrian aritu ziren zapatuan

Xabik ondo jakin du taldearen arimari urteetan zehar tinko eusten

zuten zapatuan. Izan ere, talde moduan, kide batzuk hasi berriak dira Señor Non, baina oholtza gainean bat eginda agertu zen laukotea. Azkenaldian, beste konpromiso batzuri lehentasuna ematearren, lehengo kide batzuek taldea utzi eta ordezkatu egin behar izan dituzte. Talde eraberrituarekin aipatutako disko akustikoa atera du Xabik, baina zapatuko eszenaratze elektrikoan ere ederto moldatu ziren laurak. Guztiak, aurrez, elkarrekin jota edota urte askoan musikan ibilitakoak dira eta hori igarri egiten da zuzenekoan. Zapatuan taldearen hamarkadari egin zioten errepasoa, euren ardatz den 70eko hamarkadako rock gogorrenaz ahaztu barik.

SEÑOR NO ARRASATEN

XABI GUERRA | SEÑOR NO TALDEKO AHOTSA ETA GITARRA

"Jarraitzaileak asko harritu dira akustikoarekin, baina gustatu zaie"

Monika Belastegi

Europar egindako biratik iritsi berriak dira. Gogotsu. Señor si aurkezten dihardute, baina hurrengo disko bat buruan, dagoeneko.

Zer moduz Alemania, Austria eta Herbehereetan egin duzuen biran? Iritsi berri zaudete.

Erritmoa nahiko gogorra izan da. Oraindik loa errekuperatzen ari gara. Hamaika kontzertu egin ditugu hamabost egunetan. Baina, gehienez, bost egin ditugu jarraian, gainerakoetan izan dugu tartean atsedean hartzeko egunen bat. Baina esperientzia mundiala izan da, guztiok gaude errepikatze gogorekin. Ezin hobeto hartu gaituzte egon garen leku guztietan.

Lehenengoz joan zarete. Emanaldietara jende asko joan da?

Hain zuzen, lehenengoz joan garela ez genuen espero jende gehiegi egotea kontzertuetan. Oro har, nahiko flojotxoia izan da.

Hainbat kontaktu ere egiteko balioko zizuen egonaldiak. Lotu duzue zerbait?

Hainbat kontaktu egin ditugu: Liverpoolera eta Belgikara joateko datak zehazten hasiko gara, esaterako. Denboraz ibili nahi dugu, hegaldi merkeak lortzeko furgonetan joan beharrean. Oraindik ez gara horretan hasi, baina kontaktuak eginda daude eta datorren urtean joan egingo gara, ziur.

Señor Si diskoa irailean kaleratu zenuten. Nolako harrera izan du?

Pozik gaude, kritika onak jasotzen dihardu. Disko gehienetan gertatu da hori, baina honetan nabari da Gaztelupeko Hotsak diskoetxea atzean dagoela: sekula baino promozio gehiago egiten ari gara, elkarrizketa gehiago...

Eta nola daramazu promozioarena?

Nahiko gaizki. Bueno, gaizki ez, baina guri gustatzen zaiguna da musika egitea. Dena den, egin beharreko gauza da helburua diskoa saltzea delako eta alde horretatik onuragarria da.



Xabi Arrasateko 3.60 aretoan.

Señor Si CD formatuan dago kalean, eta biniloa ere laster.

Eguaztenean iritsi zen. Esku-ragarri dago, hortaz.

Hain zuzen, biniloa izan da diskoetxez aldatu eta Gaztelupeko

Hotsakera joatearen arrazoieta-bat.

Bai, aurreko diskoetxeak, GP Records-ek, ez zuen biniloa egiterik nahi, eta guk bai; jakin bazekiten, gainera, ezinbesteko

"Diskoari Señor Si izena txantxa baten ondorioz jarri genion"

"Dagoeneko badugu buruan beste disko bat egitea, udarako edo"

baldintza dela guretzat diskoa biniloan ere ateratzea. Baina horrez gain, baziren bestelako kontuak ere; interes falta sumatu genien.

Orain arte dena ukapena (Señor No) eta bat-batean baikortasuna (Señor Si). Adinaren gauza ote?

(Barreak). Ez. Adinarekin ez-korrango bihurtzen garela uste dut. Diskoaren izena, egia esan, bazileoa da. Akustikoaren lehen kontzertua egin genuenean, Bukowskyn, adar-jotze gisa Señor Noren Señor Si kontzertua jarri genion izena. Azkenean, gustatu egin zitzaigun eta diskoari izen hori jarri genion.

Nolatan disko akustikoa?

Jendea, betiko jarraitzaileak, asko harritu dira. Ez zuten halakorik espero. Bi arrazoiengatik harritu dira: batetik, ez zutelako akustikorik espero eta bestetik, ez zutelako uste halako indarra izango zuenik. Kontua da Madrilgo areto batean jotzeko zerbait ezberdina prestatu behar genuela. Eta kantu akustiko bat prestatu genuen. Baina gustatu egin zitzaigun eta hortik etorri da diskoa.

Hurrengo ere buruan dabilzue.

Bai, berehala grabatu nahi dugu zerbait berria. Tony Slugsekin berba egin dugu elkarrekin diskoa egiteko, akaso. Baina ez dago ezer lotuta. Hainbat abesti ditugu dagoeneko eta orain pentsatu behar dugu singlea edo beste zerbait luzeagoa egin nahi dugun, udarako edo.

Shanti Magma eta Lobo Eléctrico taldeko otso-gizonak arduratu ziren gaua pizteaz

Rock&roll erotikoa eta glam ukituak ahaztu gabe, Tolosako laukoteak '¿Has visto al Lobo Eléctrico?' azken lana aurkeztu zuen zapatu gaueko kontzertuan

Jon Berezibar

Ikusi duzu Lobo Eléctrico?, galdera honek, bandak sortzen duen ikusminaz gain, euren lehen lana ere aurkezten du. ¿Has visto al Lobo Eléctrico? lanarekin egin ziren ezagun tolosar hauek 1999an eta ordutik hona makina bat eszenatokitara eramanez dagoeneko euren likantropia. Emanaldi dantzagarria eta bizia egin zuten gipuzkoarrek eta 3.60 aretoa bero eta gertu utzi zuten Señor Nokoendako. Harrera lan bikaina egin zuten zapatu gauean otso-gizonek.

Erotic rock&roll, etiketak gustoko dituztenentzako, edo Glam Rocka, The Stoogesekin nahastuta, kritikaren arabera. Koloreak kolore, iazkoa kontzertuz jositako urtea izan zen tolosarrentzat eta Arrasateko Gaztetxean ere jo dute urte honen hasieran. Hark utzitako zapo-

onak deituta joan ziren 3.60 aretoko zapatuko kontzertura ere asko. Espektatiba guztiak ase zituzten zapatuan.

SHANTI MAGMA, SU-PIZTAILE
Oholtzaren jaun eta jabe egin zen hasiera hasieratik Shanti Mag-

Erotic rock&roll delakoa egiten dutela diote Lobo Eléctrikokoek

Ikusleak dantzara ateratzea izan zen, abesteaz gain, Shanti Magmaren egitekoetako bat



Glam rock ukituekin, jendea dantzaraztea izan zen laukotearen betebeharra.

ma, taldearen ahotsa eta burua. Ikuskizuna maite dutela argi dago eta abeslariak garbi utzi zuen ez zuela inor besoak gurutzatuta ikusi gura. Eszenatokia glam-ez bete eta energia guztia ikusleengan deskargatzen saiatu zen frontman-a. Dantzagarriak eta melodikoak dira Lobo Eléctricoren kantak eta giroa bizitzea lortu zuten zalantza barik. Aipa-

garriak ere, baxu eta bateria-jotzaileak. Jorge Perrolobok eta Lander Capitan Sarracenok ederto estutu zituzten kantak, behar moduko bizitasuna emanez. Biek, gainera, emanaldi bikoitza egin zuten zapatuan, ostean jo zuen Señor No talde eraberrituaren kide ere badira-eta.

Taula gainean ondo moldatzen direla erakutsi bazuten ere,

laukoteak ez darama urte larregi musikan. Lan bakarra daukate kalean, aipatutako ¿Has visto al Lobo Eléctrico?, Bonberebearekin iaz plazaratutakoa. Orduz geroztik ez dira geldi egon eta berehala hasi dira izena hartzen. Gure mugetatik kanpo Europa eta Japonia aldean ere ibili dira biran. Kontuan hartzeko taldea beraz otso-gizonen hau.



ANTZERKIA | 'PAKITARENTZAT BAKARRIK'

Elgetako Udalak eta Kutxak antolatuta antzerki emanaldia doan ikusteko aukera egon zen Elgetan barikuan

Non. Elgetako Espaloia kafe antzokian.
Zenbat jende. 50 bat lagun.
Iraupena. 50 minutu inguru.

Geaxi Ezpeleta

Taula gainean emakume bat ageri da kafe katilu bat eskuetan duela. Urduri antzean ikusleekin berriketan hasten da, barruan daraman zama arindu nahian. Ikusleek bere arazo bera balute bezala jokatuz.

Pakita urteetan aurrera doan emakume bakartia da. Bere bizitza bingoaren eta kafearen inguruan antolatzen duena. Ikuslearen aurrean maiteminduta dagoela aitortzen duen arren, sentimendu hauek sendatu beharreko gaixotasun bezala ulertzen ditu. Horregatik azaldu da ikusleekin osatzen duen talde-terapiara: "bizitza bai, maitasuna ez".

Erietxe horretan Pakita zoriontsu bizi da denboralditxo batez. Hala ere, egoera horren bira ematen du berandu baino lehen ikusleek ezusterako.

Maitasunaren eta sexuaren inguruan jirabiran dabilen antzezlanaren izateaz gain, aktorearen eta pertsonaiaren arteko erlazioaren isla dramatikoak azalaratzen duen obra berezia dela esango nuke. Antzezlanaren pertsonaiak burutzen dituen ekin-

tza lazgarriak errepikatzen amaitzen baitu antzezleak. Azkenean, Pakitak istorioan zehar bi gizonezko erailtzen ditu modu berean erailtzean.

Diskurtsoa samurra bada ere, antzezlanaren funtsa ez da horren ulerterraza.

AKTORE EZAGUNA

Itziar Ituño, *Goenkaleko* Nekane ertzain-buruarena egiten duen aktorea da istorioko protagonistaren paperean sartzen den antzezlea. Obraren egilea eta zuzendaria berriz, Ernesto Caballero da.

Antzezlearen eta pertsonaiaren arteko harreman estuaren isla da

MUSIKA I ROCK JAIALDIA

Rock&rolla nagusi, Los Padrinos gasteiztarrekin

Non. Oñatiko Gaztelekuan.
Antolatzailea. Atzeko kaleko Jai Batzordeko kideak.
Zenbat jende. 150 bat lagun.

A. G.

Zapatu gauean punk-rock jaialdia egin zuten Oñatiko Gaztelekuan. Hiru izan ziren gonbidatutako taldeak: Basque Country Pharaons, Los Padrinos eta Discipulos de Dionisos. Atzeko kaleko jaien barruan zen egiteko kontzertu hau, baina euriarengatik bertan behera geratu eta zaturako antolatu zuten jaialdia Jai Batzordekoek.

Hiru taldeetatik Los Padrinosek egin zuen emanaldirik aipagarriena. Gasteiztarrek rock&roll emanaldi bikaina egin zuten zapatuan Gaztelekuan. Hala ere, azkenak izan ziren jotzen eta jende gutxiago izan zuten ikusle. Basque Country Pharaons eta Discipulos de Dionisos ere ederto ibili ziren ohol-tza gainean Oñatin.



Basque Country Pharaons.



Erosten jakin:
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

 **EROSKI**
Erosten jakin

RIP

PUNKAREN 25 URTEKO HISTORIA BIZIA



DVD Erreportajea-elkarrizketak Kontzertuak Argazki galeria Bestelakoak

CD Argitaragabeko 14 abesti

Salgai ohiko
tokietan eta
GOIENAKo
egoitzetan



DVD-CD SALGAI

ZINEMA | AUPA ETXEBESTE! FILMAREN ESTREINALDIA BERGARAN

Zine areto gabezia salatuzuen Asier Altunak Bergarako estreinaldian

'Aupa Etxebeste!'ren Bergarako estreinaldiak bete egin du pilotalekua. Kultura aretoa aldarrikatzeko gune ere izan zen

Monika Belastegi

Lepo bete zen Bergarako Udal pilotalekua egubakoitzean. Gogoz itxarondako *Aupa Etxebeste!* filma eman behar zuten, eta herrian sortutako ikusminaren isla-zuzendarietako bat, Asier Altuna, bergararra da eta hein handi batean Bergaran filmatuta dago, ilarak sortu ziren. Gainera, filmaren bi zuzendariak -Telmo Esnal eta Asier Altuna bergararra- eta Iban Garate eta Patxi Gonzalez aktoreak han egongo zirelako zurrumurruak areagotu egin zuten ikusmina.

PROTESTA EKITALDIA

Filma Udal pilotalekuan ikusi beharraren harira, protesta ekitaldia ere izan zen pilotalekuaren sarreran. Herriko Novedades zinema itxi eta zinema emanaldiak berreskuratzeko sortu zen taldeak deitu zuten bilkura. 19:30ean egin zuten, *Aupa Etxebeste*ren lehenengo emanaldiaren aurretik -bi egon ziren egubakoitzean eta beste bi zapatuan-.

Bergarak ez du zine aretorik, ezta kultura ekitaldietarako areto egokirik ere, eta horixe izan zen protestaren oinarria. *Zinea, musi-*

ka, antzerkia... Bitoriano: kultura aretoa noizko? lelodun pankartaren atzean herritar ugari batu zen egoera hori salatzeko asmoz.

ASIER ALTUNA DEITZAILEEKIN BAT

Pilotalekua zine areto bihurtuta kantxaren erdira atera ziren bi zuzendariak eta aktoreak herritarrek agurtzera filmaren aurretik. Telmo Esnalek eskerrak eman zizkion Udalari filmatzeko garaian eskainitako laguntzagatik; baita Udal Musika bandari eta herritarrei ere. Iban garatek eta Patxi Gonzalez aktoreek ere bai.

Asier Altunari dagokionez, bat egin zuten salaketarekin eta *Exiliatuak* izeneko testua irakurri zuten: "Udalaren utzikeria eta aurreikuspen faltagatik ematen ez digun zerbitzuen bila hara eta hona gabiltzan exiliatuak ematen dugu bergararrok", esan zuten. "Bergara lo egiteko gela handi bat bihurtu da. Hiltzen ari da", gehitu zuten. Eta bukatu zuten esanez: "Pilotalekua pilotan egiteko da, eta Bergarak musika, antzerkia edo zinea ikusteko aretoa behar du, bihar baino hobeto gaur".

Pilotalekua lepo bete da *Aupa Etxebeste!* filma ikusteko

Hainbat herritarrek kultura areto egokia aldarrikatzeko bilkura egin zuten pilotaleku aurrean



AITOR LIZARRALDE

Asier Altuna, Telmo Esnal, Iban Garate eta Patxi Gonzalez egubakoitzean, pilotalekuko lehenengo emanaldian.



AITOR LIZARRALDE

Herritar askok egin zuten bat zine emanaldiaren aurretik egindako protestan.

Zure negoziarioaren erakusleioa Interneten

www.goiena.net-eko **blog komertzialak**

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emaizta onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:

www.goiena.net/blogak · azabarte@goiena.com · 943 76 92 70

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

www.goiena.net/blogak

/4quattro4	/gallastegi	/ohiak
/arregi	/garaia	/okipark
/atai	/gutzieder	/vitoria
/azkarate	/korozabaleta	/pando
/joseba	/lilura	/udalax
/BZ-sistemas	/multiopticas	/udalaitz



Gabonetako postal digital onena 300 euroekin sarituko dute Eskoriatzan

Eskoriatzako Udalak deitutako lehiaketaz gain, Topagunearen Gabonetako argazki sariketa ere badago

Leire Kortabarria

Eskoriatzako Udalak Gabonetako Postal Digitalen Lehiaketa antolatu du. Lehiaketa berria da, eta 300 euroko saria emanago diote irabazleari. Helburua da Eskoriatzako Udalak Interneteko mezu guztietan erabiliko duen Gabonetako postala aukeratzea; horrez gain, aurkeztutako lan guztiak www.eskoriatza.net udal webgunean ipiniko dituzte.

Norbere esku uzten dute zelako irudiak aurkeztu: irudi bakarra, multzo bat, irudi bizidunak, testua bat-batean agertzen den irudia... Testuak euskaraz izan behar du. Gura bezain beste lan aurkez daitez-

ke lehiaketak@eskoriata.net helbidera abenduaren 2a baino lehen. Mezuaren gaiaren tartean idatzi behar da *Christmas digitalen lehiaketa*, eta gorpuztean, egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta posta helbidea ipini behar dira.

Horrez gain, Eskoriatzako eta Gatzagako LHko 1.-6. mailakoendako Gabonetako marrazki lehiaketa ere deitu dute. Lanak Eskoriatzako ludo-tekara eraman behar dira.

UMEENDAKO LEHIAKETA

Topaguneak, Euskara Elkar-teen Federazioak, bere bezeroei Gabonak zoriondu eta Urte Berri ona opatzeko euskarria aukeratzeko argazki lehiaketa deitu du 14 urtetik gorakoendako. Argazki berriak edo aurrez egindakoak onartuko dituzte. Paperean edo euskarri digitalean aurkez daitezke, azken kasu honetan gazteak2@topagunea.com helbidean. Saria da bi lagunendako afaria. Argibide gehiago duzue www.topagunea.org webgunean, aipatutako e-posta helbidean edo 94 621 51 16 telefonoan.

Labur

Emakumeen gaineko zinema zikloa hasiko da egunean Arrasaten

Emakume Zuzendariak, Emakume Protagonistak izeneko zinema zikloa antolatu du Arrasateko Udal Emakume Sailak. Amaia antzokian izango dira emanaldiak, azaroko egunetan, 20:30ean. Helburua da "arau sexista tradizioaletik aldendu eta horren aurka borrokatu duten emakumeak" plazaratzea.

Egunean, *Sevigne* filma emango dute. Madame de Sevigneren gaineko antzezlanaz zuzendu behar duen emakumea da protagonista, eta antzezlan horren harira sortzen diren harremanak.

Antzuolako baserrien sorreraz, krisiaz eta etorkizunaz hitzaldia

Antzuolan baserria zelan eta noiz sortu zen, Antzuolako baserrien berezitasunak, utzi duten ondarea eta berau zelan babestu, baserriaren krisialdia eta etorkizuna... gai horietaz eta gehiagoz hitz egingo du Josu Tellabide etnologoak egunean, hilak 3, Antzuolako Olaran etxean, 19:00etan.

Tellabidek herritar guztiak gonbidatzen ditu hitzaldira; izan ere, Tellabidek gogorarazten duen moduan, "Antzuola baserrietatik sortu zen", eta "herriaren ondarea" dira.

'Euskara sencilloaren manifestoa'-ko pertsonaien beste muntaia bat

Euskara sencilloaren manifestoa delako antzezlaneko bi pertsonaia xelebreekin, *Larru Haizetara* ikuskizuna egin du Biko Teatro taldeak, eta berau ekarriko du Oñatiko Santa Ana antzokira azaroren 4an, egubakoitza. Sarrerak salgai daude kultura etxean 7 eurotan; egunean bertan, 8 euro kostatuko dira.

Munduko euskaldun berririk zaharrenek bi gaitaz egingo dute berba orain: bata, serioa, pertsonaion lan egoera; bestea, azalekoa, sexua, horrekin erabat obsesionatuta daude eta.

Hitzorduak



ZALAKAIN ETA AZKARGORTA DEBAGOIENDARREN MARGO ERAKUSKETA |

Oñatiko kultura etxean ipini dituzte artista bien lan berriak, eta azaroren 10era arte ikus daitezke

Jose Luis Zalakain aramaioarraren eta Rikardo Azkargorta bergararraren margolan berriak batzen ditu erakusketa batek Oñatin. Zalakainek 14 margolan erakusten ditu, eta Azkargortak, 22. Erakusketa Oñatiko kultura etxean dago azaroren 10era arte, egunero, 18:30etik 20:30era.

Estilo aldetik desberdinak dira margolari bien lanak: Zalakainek paisaiak margotzen ditu, horietako asko Oñatikoak, askotan misterioaren eta irudimenaren ikuspegitik. Azkargortaren lan asko hiri-paisaiak dira, modu zuzenean eta garbian irudikatua.

ZINEMA |

• *La huella* filma emango dute

gaur, astelehena, Arrasaten

Film hori ikusteko aukera dago gaur, astelehena, Amaia antzokian, 20:30ean.

• *Obaba* filma ikusteko aukera

Arrasaten eta Oñatin

Obaba filma, euskaraz, bi herritan emango dute: Oñatiko kultura etxean, gaur, astelehena (19:30, 22:15) eta bihar, martitzena (17:00, 19:30, 22:15) emango dute; Arrasateko Amaia antzokian, bihar, martitzena, 19:30ean.

• *Los cuatro fantásticos*

filma emango dute Arrasaten

Bihar, martitzena, emango dute film hori Amaia antzokian, 17:00etan.

• *Amanece, que no es poco*

filma emango dute Elgetan

Etzi, eguaztena, emango dute film hori Espaloia antzokian, 21:30ean.

• *American Splendor* filma

emango dute Oñatin

Egunean, azarok 3, emango dute film hori kultura etxeko zinema aretoan, 20:00etan, zineklub saioan.

ERAKUSKETAK |

• Manuel Lasarteren gaineko

erakusketa dago Oñatin

Manuel Lasarte: Bizitza eta Sorkuntza erakusketa dago Arantzazun, Gandiaga Topagunean, abenduaren 11ra bitar-

tean. Asteburuetan dago zabalik 11:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara. Bisita bereziak ere hartzen dituzte alde aurretik hala eskatuta.

DEIAK |

• Bergarako Aroztegi aretoan

erakusketa jartzeko eskaerak

Aroztegi aretoan erakutsi gura duten artistek eskariak aurkezteko aukera dute azaroren 18ra bitartean. Horretarako eskari-orri eredu eta baldintzen plegua udaletxean daude.

IKASTAROAK |

• E-postaren gaineko

ikastaroa Aretxabaletan

Posta elektronikoa erabiltzen ikasteko tailerra emango dute etzi, eguaztena, KZGunean, 18:00-20:00 orduetartean.

• Lana bilatzeko Internet

erremintak, ikasgai

Enplegu bat lortu izeneko Internet ikastaroa emango dute egunean, hilak 3, Eskoriatzako KZGunean, 11:00-13:00 orduetartean.

• Grafologia eta malabarismo

ikastaroak daude Arrasaten

Grafologia eta malabarismo ikastaroetan izena eman daiteke Arrasateko Gazte Bulegoan (telefono zenbakia da 943 77 00 65; posta elektronikoko helbidea, gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net). Grafologia ikastaroa azaroren 3tik aben-

duaren 1era izango da; malabarismo ariketena, azaroren 9tik 30era. Biak dira astean behin, 18:00etan. Matrikula da 20 euro, 10 ikasle eta langabeendako.

LEHIAKETAK |

• Sexu-biolentzia salatze

kartel lehiaketa

Sexu-biolentzia salatze kartel lehiaketa deitu du Beke-k, Bergarako Emakumeen Kultura Elkarteak. 15 urtetik gorakoek parte har dezakete, bakar-ka edo taldeka, 50 x 35 cm-ko kartelekin. Derrigorrezko testua da *Emakumeen aurkako indarkeriarik ez!* Lanak kultura etxera eraman behar dira azaroren 18ra bitartean. 200 euroko saria banatuko dute azaroren 25ean, Nazioarteko Sexu Bientziaren Aurkako Egunean.

• San Andres bertso

paper lehiaketa deitu dute

11. San Andres bertso paper lehiaketa deitu du *...eta kitto!* euskara elkarteak Deba ibarrean jaio, bizi edo ikasten dutenendako. Debagoiendarrak parte har dezakete 14 urtetik gorakoek kategorian, gai eta doinu libreko bertsoekin. 120 eta 60 euroko sari bana daude. Bidali lanak honako helbidera: Urkizu 11, solairuartea, 20600, Eibar. Mugaguna da azaroren 7a, astelehena.

Eguraldia



Lainoak gehituko dira eta euri pixka bat ere egingo du bihar eta etzi

Gaur hego haizeak gurekin jarraituko du, baina ez da indartsua izango. Egunean zehar lainoak eta ostarteak tartekatuko dira eta ilunabarrerako haizea berriz ere indartuko da pixka bat. Tenperaturak ere gorantz egingo ei du gaur.

Bihar eta etzi ere lainoak izango dira gurean eta euri

arriskua gehituko da. Horrekin batera, tenperaturak freskatuko dira. Fronte hotz batek zeharkatuko du gure lurraldea arratsalde partean eta orduan igarriko dugu tenperaturaren beharakatxo.

Aldiz, egunean lainoak bai, baina euri arriskurik ez dugu izango.

Goardiako farmaziak

ARRASATE

Astelehena, 31	Ruiz Perez	Maala, 31 (943 79 14 09)
Martitzena, 1	Zabala	Zarugalde, 42-44 (943 79 16 80)
Eguaztena, 2	Azkoaga	Ferrieras, 1 (943 79 15 15)
Eguena, 3	Azkoaga	Iturriotz, 17 (943 79 79 99)
Egubakoitza, 4	Korkuera	Maixu Aranbarri, 1 (943 79 22 26)

BERGARA

Astelehena, 31	Camacho	Oxirondo, 4 (943 76 16 87)
Martitzena, 1	Zabala	Barrenkale, 25 (943 76 16 87)
Eguaztena, 2	Guallar	San Antonio, 5 (943 76 11 05)
Eguena, 3	Estella	Matxiategi, 5 (943 76 19 63)
Egubakoitza, 4	Mozos	Iparragirre, 2 (943 76 12 15)

OÑATI

Astelehena, 31	Anduaga	San Lorenzo, 3 (943 78 21 16)
Martitzena, 1	Barrentxea	Kale Zaharra, 1 (943 78 01 22)
Eguaztena, 2	Barrentxea	Kale Zaharra, 1 (943 78 01 22)
Eguena, 3	Barrentxea	Kale Zaharra, 1 (943 78 01 22)
Egubakoitza, 4	Garate	Kale Barria, 42 (943 78 05 58)

ARETXABALETA

Astelehena, 31	Fraile Iturralde	Herriko plaza, 10 (943 79 21 99)
Martitzena, 1	Fraile Iturralde	Herriko plaza, 10 (943 79 21 99)
Eguaztena, 2	Iturralde	Mitarte kalea, 18 (943 79 27 22)
Eguena, 3	Iturralde	Mitarte kalea, 18 (943 79 27 22)
Egubakoitza, 4	Iturralde	Mitarte kalea, 18 (943 79 27 22)

Telefono jakingarriak



OSASUNA / LARRIALDIAK

OSAKIDETZA (Larrial.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoa	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63

Bergara	943 77 91 06
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 79 22 33
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	943 28 35 99

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)	943 78 21 93
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 77 12 28
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34
Goibeko / Elgeta	943 78 90 85
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Jardun / Bergara	943 76 08 19

Laixan / Oñati	943 71 63 11
Hondakindegia Alternatiboak	
Arrasate	943 77 11 43
Bergara	945 76 44 42
Oñati	943 78 36 67
Kiroldegia	
Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola	943 76 60 65
Aramaio	945 44 53 74
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

Zozketak

BONOLOTOA

Astelehena, 24
17 · 23 · 31 · 38 · 39 · 48
Osagarria: 42 | Itzulketa: 6

Martitzena, 25
1 · 7 · 34 · 36 · 38 · 45
Osagarria: 10 | Itzulketa: 4

Eguaztena, 26
3 · 4 · 5 · 11 · 17 · 41
Osagarria: 29 | Itzulketa: 7

Egubakoitza, 28
12 · 13 · 14 · 29 · 43 · 45
Osagarria: 17 | Itzulketa: 9

ONCE

Astelehena, 24 **18.357**

Martitzena, 25 **15.828**

Eguaztena, 26 **90.775**

Eguena, 27 **01.763**

Egubakoitza, 28 **71.660**

Kupoitzarra (120 seriea)

Domeka 30 **09.280**
Kupoitzarra (031 seriea)

LOTERIA PRIMITIBOA

Eguena, 27
1 · 17 · 18 · 33 · 38 · 39
Osagarria: 14 | Itzulketa: 0

Zapatua, 29
6 · 14 · 16 · 18 · 39 · 48
Osagarria: 23 | Itzulketa: 4

Zapatua, 29 (Saritzarra)
27 · 34 · 36 · 42 · 46
Osagarria: 3

Gazte zerbitzuak

BEKAK

- **Artea.** BBK Fundazioaren eta Bilboko Arte Eder Museoren ikerketa artistikorako bekak. Epea: urriak 31.
- **Ikerketa bekak.** Garagardoari, osasunari eta nutrioari buruz. Epea: azaroak 15.

LANA

- **Garbitzailea.** Bergarako Mizpirualde Zaharren Egoitza Fundazio Publikoan aldi batez garbitzaile lanpostua betetzeko lehiaketa. Epea: azaroak 7.

LEHIAKETAK

- **Sexu-biolentzia salatzen kartzel lehiaketa.** Beke elkarteak antolatuta. Leloa: *Emakumearen aurkako indarkeriarik ez!* Lanak Bergarako kultura etxera eramane. Saria: 200 euro. Epea: azaroak 18.

IKASTAROAK

- **Begirale Ikastaroa.** Gurutze Gorriak antolatuta. 200 ordu teoriko-praktiko, 15 asteburutan, azaroaren 26tik ekainaren 18a arte. Matrikula: 300 euro. Izenematea: Mankomunitatean. Epea: azaroak 19.

- **Malabarrak eta zirku teknikak.** Arrasateko Gazteria Sailak: diaboloa, akrobaziak, makilak, contact... eskolak. Eguaztenetan, 18:00-20:00, Gaztetxean, azaroaren 30era arte. Matrikula 20 euro. 10 ikasle edo langabeentzat.
- **Grafologia.** Hastapen maila, Arrasateko Gazteria Sailak antolatuta. Eguenetan, 18:00-20:30, urriaren 10etik abenduaren 1era. Matrikula, 20 euro. 10 ikasle edo langabeentzat.

ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
BERGARAKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea. 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4. 943 71 82 57
gip@oinatigazteleku.com



Bertan salgai

ASTELEHENEKO

Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

Antzuola:

- Altzarte okindegia
- Martin okindegia

Elgeta:

- Kioskoa

Bergara:

- Bolintxo okindegia
- Ogizun okindegia
- Konde okindegia
- Olabe okindegia
- Mizpildi okindegia
- Plazako Kioskoa
- Txurrerua Kioskoa

Arrasate:

- Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
- Balantzategi kioskoa
- Portaloiko kioskoa
- Usue paper denda
- Bolintxo Okindegia
- Kurruxko okindegia

Aretxabaleta:

- Errasti kioskoa
- Ibarra estankoa

Eskoriatza:

- Dorleta liburudenda

Leintz Gatzaga:

- Labidea

Aramaio:

- Plazako kioskoa

Oñati:

- Haritza Kioskoa
- Ibarrondo Kioskoa
- Eskolatxo okindegia
- Arantxa okindegia
- Irizar okindegia
- Ogibari okindegia
- Olakua okindegia
- San Lorenzo okindegia
- Errota okindegia

Zorion agurrak



ARRASATE
Ibai Etxebeste
Urriaren 30ean,
2 urte. Zorionak
Ibaitxo! Etxekoak,
Aupa Etxebeste!



ARRASATE
Raul Perrino
Azaroaren 3an
urtebetetzea.
Zorionak *Perrin!*
Scotland 4 ever!



ARRASATE
Ainhoa Zabaleta
Azaroaren 4an
19 urte. Zorionak
eta urte askotarako
Zaba! Koadrilakoak.



BERGARA
Aitzol Ugalde
Urriaren 15ean, 2
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Etxekoak eta Leire.



ARETXABAETA
Odei Vazquez
Urriaren 24an, 13
urte. Zorionak eta
urte askotarako.
Oxel eta gurasoak.



ARETXABAETA
Larrantz Berezibar
Urriaren 26an, 10
urte. Zorionak eta
urte askotarako.
Etxekoak.



ARETXABAETA
Ekain Garcia
Urriaren 31n,
2 urte. Zorionak eta
muxu handi bat.
Etxekoak.



ARETXABAETA
Alaitz Agirre
Azaroaren 1ean, 3
urte. Zorionak eta
muxu bat etxeko
guztien partetik.



ESKORIATZA
Gorka Urrutia
Azaroaren 4an,
10 urte. Zorionak
eta ondo pasatu.
Etxeko guztiak.



ESKORIATZA
Mikel Crespo
Azaroaren 4an,
9 urte. Zorionak eta
urte askotarako.
Etxekoak.



OÑATI
Irene Agirre
Azaroaren 2an, 12
urte. Urte askotara-
ko! Fermin eta
Mertxe.



ANTZUOLA
Asier Garcia
Azaroaren 1ean, 6
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Familiakoak.



ELGETA
Mikele Arkarazo
Urriaren 25ean, 4
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Etxekoak.



Jaiotakoak



Lur Monasterio Bollar
Iruñea • 2,900 Kg.
Urriak 18.
Gurasoak: Amaia
(Bergara) eta
Alberto
(Bergara).
Argazkian: Lur
amarekin.



Urri Garitaonandia Uriarte
Arrasate • 3,280
Kg. Urriak 21.
Gurasoak: Lorea
eta Gaizka
(Gasteiz).
Argazkian: Urki
bapo lo ospitaleko
bere kuman.



Madalen Etxegarai Zelaia
Oñati • 3,750 Kg.
Urriak 23.
Gurasoak: Itziar
(Oñati) eta Koldo
(Gasteiz).
Argazkian:
Madalen amona-
ren altzoan.



Eduarne Garai Sanchez
Arrasate • 2,920
Kg. Urriak 26.
Gurasoak: Rosa
eta Felis
(Arrasate).
Argazkian: Eduarne
aitaren
besoetan.



Unai Gomez Perosterena
Oñati • 3,590 Kg.
Urriak 26.
Gurasoak:
Argiolain eta Jose
Mari (Oñati).
Argazkian: Unai
amaren altzoan
aharrausika.



Danel eta Ariane Martin Cuadrado Lopez
Bergara • 3,110 eta
2,440 Kg. Urriak
26. Gurasoak:
Nerea eta Andoni
(Bergara).
Argazkian: Bikiak
lo amaren altzoan.

Zoriondu ARRASATE IRRATIAN




Ikaskideak, lagunak edo
senitartekoak zoriondu
nahi badituzu, **ARRASATE IRRATIAK**
egunero ematen dizu aukera hori.

Bidali eskaria:
irratia@goiena.com helbidera
edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero,
zorion agurren tartea
ARRASATE IRRATIAN

FM107.7
ARRASATE IRRATIA



ESKELAK
ASTELEHENEKO GOIENKARIAN

82 euro
943 25 05 01

Gaur irratian

Arrasate Irratia

FM 107.7

'Igo autobusera' | 09:00

Elkarrizketa bilduma berezia

Irratiko kideek egindako elkarrizketa bilduma berezia entzuteko aukera izango dugu gaur, astelehena. Jesus Arregik Itziarke ganadu ferriako antolatzaileak, bihar egingo duten ferriaren gaineko azalpenak eman- go dizkigu eta baita hara joateko gon- bidapena egin ere. Horrekin batera, Xurdana Fernandezek, Eroskiko on-line zerbitzuaren arduradunak, kontatuko digu etxerako erosketak on-line nola egiten diren.

Loiola Irratia

FM 99.8

'Kalez kale' | 12:00

Guraso bakarreko elkartean gainean

Guraso bakarreko elkarte sortu berri dute Arrasaten eta elkarte horretako gurasoak elkarrizketatu- ko dituzte *Kalez kale* saioan. Horrez gain, Eibarren abenduaren 12an egingo den ikus-entzunezko rallya- ren gaineko informazioa ere eman- go dute; rallya zer den, zer egin behar den, nola parte hartu eta zertara- ko sortu den esango dute. Rallyan parte hartzeko izena emateko epea zabalik dago.

Radio Euskadi

FM 98.2

'Boulevard' | 09:30

Josu Erkoreka jeltzalea elkarrizketatuko dute

Euskadi Irratia

FM 104.4

'Faktoria' | 09:00

Gernikan izango dira urriko azken azokan

Gaur telebistan

GOITB



Ganbara Abesbatzaren kontzertua 16:15

Oñatiko Ganbara Abesbatzak Azkoitian eskainitako kontzertua izango da ikusgai gaur.

10:55 Emisio hasiera.
11:00 Behazulo.
11:30 Ilunpean.
12:00 Motzean eta Zera dio.
12:15 16mm.
12:45 Jaun ta jabe.
13:15 Berbaire.
13:45 Klip@. Gaur egungo musika taldeen bideoklipak.
14:30 Jazz mintegia.
15:00 MKT.
15:30 Ikuskizuna: Oñatiko Ganbara Abesbatzak eta Musikeneko zenbait musikaririk Azkoitian egindako kontzertua.
17:00 Danbako.
17:15 Erreportajea: Kirrikoketa musika eta Zugarramurdi.
17:45 Marrazki bizidunak. Bilduma
20:15 Eltze beroa. Sukaldaritza saioa
20:30 16 mm.
21:00 Behazulo.
21:30 Zera dio eta Motzean.
21:45 Ilunpean
22:15 Didjeridu.
22:45 Berbaire.
23:15 Behazulo.
23:45 Emisio amaiera.

ETB 1



Eguneroko berri Estitxu Fernandezekin 20:50

Bertatik Bertara-ko kazetariak laguntzen diote Estitxuri egune- ko albisteen berri ematen.

06:45 Tik Tak Circus.
07:15 Betizu. *Doug, Hirukiak, Doremiren magia* eta *Montana*.
08:50 Eklipse@.
09:15 Bidaide.
10:10 National Geographic.
11:00 Elkartasunaren bideak. *Nikaragua: Lurraren alde borrokan*.
11:30 Bertatik Bertara.
12:10 Travel notes.
12:35 Hitzetik Hartzera.
13:15 Betizu.
14:00 Gaur Egun.
14:35 Postada.
14:40 Eguraldia.
14:45 Goenkale.
15:10 Bidaide.
16:05 National Geographic.
17:05 Sustrai.
17:35 E-Klipse@.
18:00 Iparraldearen orena.
18:05 Betizu.
20:00 Gaur Egun.
20:45 Eguraldia.
20:50 Bertatik Bertara.
21:35 Goenkale.
22:05 Basetxea Gori-Gori.
23:30 Eguna iruditan.
23:35 Postdata.
23:40 Sautrela.
00:00 Kar Kar Kluba.
00:35 Egi bidean.
00:45 Bakarrik edo...
02:45 Bertatik bertara.
03:25 Benta berri.

ETB 2



Drogak hartzen ibiliko ote da Saul? 21:55

Hori da Txominek uste duena. Manuk, berriz, markes izate- ko aukera du. *Mi querido Klikowsky*-n.

07:10 Del país de los vascos. *Bacalao, mucho más que un pez*.
07:35 Rutas de solidaridad. *Cuba: el país de la música*.
08:00 Embrujada.
08:50 Fórum.
09:30 El Punto.
10:05 La zona muerta. *La plaga*.
11:00 Stargate.
12:00 La cocina de Pedro Subijana.
12:10 Se ha escrito un crimen.
13:55 Date el bote. Carlos Soberarekin.
14:58 Teleberri. Juan Carlos Etxeberria eta Estibaliz Ruiz de Azua.
15:55 Eguraldia. Ana Urrutiarekin.
16:00 Pásalo.
18:15 Cine western.
20:20 Esta es mi gente. Klaudio Landarekin.
20:58 Teleberri 2. Julio Ibarrekin.
21:50 Eguraldia.
21:55 Mi querido Klikowsky.
22:50 Nip/Tuck: a golpe de bisturí. *Natasha Charles*.
23:50 El día en imágenes.
23:55 Doctoras de Filadelfia. *Código, latidos y vagabundos* eta *Decisiones precipitadas*.
02:30 Esta es mi gente.

TVE 1



Palomak badaki zer den eguna gaizki hasia 16:00

Amar en tiempos revueltos telesailen, Paloma denda ireki- tzeraz joan, eta hankaz gora aurkituko du.

06:00 Canal24 horas.
07:00 Telediario matinal. Igor Gomeze- kin, Susana Rozarekin eta Salvador Martin Mateosekin.
09:00 Los desayunos de TVE.
10:15 Saber vivir.
11:15 Por la mañana. Elkarrizketak, lehiaketa eta bestelakoak egi- ten dituzten magazina. Ana Blancok albiste aurrerapena egingo du.
14:00 Informativo territorial.
14:30 Corazón de otoño. Txutxu-mutxuen gaineko saioa Anne Igaritbururekin.
15:00 Telediario 1. Ana Blanco eta Maria Escarioekin.
15:55 El tiempo.
16:00 Amar en tiempos revueltos.
17:00 Los plateados. Telesail berria.
18:30 España directo.
19:20 Vamos a cocinar... con Jose Andrés.
20:15 Gente. Sonia Ferrerarekin eta Maria Jose Molinarekin.
21:00 Telediario 2. Lorenzo Milárekin eta Jesus Alvarezekin.
21:55 El tiempo.
22:00 Mira quién baila.
00:15 59 segundos.
02:00 Telediario 3.
02:30 Ley y orden.

La 2



'Los Lunnis' saioa, goiz eta arratsaldean 07:30, 17:30

Umeendako marrazki bizidunekin osatuta- ko saioa goiz eta arratsaldean eskainiko dute bigarren katean.

06:00 Euronews.
06:45 Digimon Frontier.
07:15 That's english.
07:30 Los Lunnis.
09:30 Aquí hay trabajo.
10:00 TV educativa: La aventura del saber.
10:55 Diez líneas en el Quijote.
11:00 Las chicas Gilmore.
12:30 Padres en apuros.
13:00 Los Lunnis. *Arthur y el fabuloso mundo de los hechizos*.
15:10 Diez líneas de el Quijote.
15:15 Saber y ganar.
15:45 Grandes documentales. *Viaje por la tierra*.
16:55 Pueblo de Dios.
17:30 Los Lunnis.
19:25 Diez líneas de el Quijote.
19:30 Informativo territorial.
20:30 Deportes 2. Liga ACB.
21:00 Apartamento de soltero.
21:30 Miradas 2.
21:45 Sorteo de la Bonoloto.
21:50 La 2 Noticias.
22:25 El tiempo.
22:30 ¡Qué grande es el cine! *Celebración*. Zuzendaria: Thomas Vinterberg (1998). Aktoreak: Ulrich Thomsen, Thomas Bo Larsen.

Antena 3



'Robin Hood: Principe de los ladrones' 16:00

Arabian hilzorian egon eta gero, Robin Ingalaterrara iritsiko da, lagun arabiar batekin.

06:00 Las noticias de la mañana.
08:30 Megatrix. *Stuart Little, Código KND, Lizzie Maguire, W.I.T.C.H., Art Attack, El principe de Bel Air* eta *Sabrina en Roma* filma.
14:00 Los Simpson. *Especial noche de brujas VII* eta *VIII*.
15:00 Noticias 1.
15:45 El tiempo.
16:00 Cine. Robin Hood: Príncipe de los ladrones. Aktoreak: Kevin Costner, Mary Elisabeth Mastrantonio, Morgan Freeman.
19:10 El diario de Patricia.
20:15 ¿Quién quiere ser millonario?
21:00 Noticias 2.
21:45 El peliulón. *La máscara del zorro*. Zuzendaria: Martin Campbell. (1998). Aktoreak: Antonio Banderas, Anthony Hopkins, Catherine Zeta Jones. Dagoeneko 20 urte igaro dira don Diego de la Vegak El zorro izateari utzi ziola. Bi urte gartzelan egon eta gero, bada ordua ordeko bat bilatzen hasteko.
00:45 7 días, 7 noches.
02:00 Noticias 3.
02:30 Televanta.

Tele 5



Hildakoak itsasoan 'CSI' saioan 22:00

Caine-ren taldeak itsasoan azaldu diren sei gorpuen hilketak aztertuko ditu, *CSI Miami*-n.

06:30 Informativos Telecinco matinal.
09:10 La mirada crítica.
10:45 El programa de Ana Rosa.
14:30 Informativos Telecinco. Hilario Pino eta Begoña Chamorroekin.
15:30 Aquí hay tomate. Jorge Javier Vazquez eta Carmen Alcayderekin.
16:30 Gran Hermano. Laburpena.
17:00 A tu lado. Emma Garciarekin.
19:30 Allá tú. Jesus Vazquezekin.
20:30 Informativos Telecinco.
21:15 Camera Café.
22:00 C.S.I. Miami. *Pirateado*.
23:00 C.S.I. New York. *Parpados X*.
00:00 C.S.I. Miami. *Todo por nuestro país*.
01:00 C.S.I. Las Vegas. *Cuerpos hogares*. Madeleine Fosterren gorpua hil eta hilabetera azalduko da, etxeko armairuan.
02:00 Informativos Telecinco Noche.
02:45 Madrugada de cine. *Cazador de tormentas*. Zuzendaria: Anthony Hickox. 1999. Aktoreak: Dolph Lundgren, Mystro Clark.
04:30 Infocomer.

Astean GOITBn

Astelehena, 31



Jaieguna

Zubia dela-eta, gaur eta bihar albistegirik ez

Goiena Telebistako langileek zubia izango dute. Horrenbestez, gaurko eta bihar-ko emanaldiak bereziak izango dira. Albistegirik ez, baina gainontzeko saioek ez dute kale egingo.

Martitzena, 1



Bertso saioa | 16:15

Idiazabalen egindako bertso txapelketa

Gero eta gertuago dago BEC-en egingo duten Bertso Txapelketaren finala. Baina, oraingoz kanporakete- kin gozaten gabiltza. Martitze- nean, Idiazabalgo saioa.

Eguaztena, 2



'16mm' | 22:15

Hurrengo film laburra Hondarribiatik

Basurdea film laburra eskainiko dute eguazteneko *16mm* telebista saioan. Ane Muñoz hondarribiar- rak, azalduko ditu lan horren nondik norakoak.

Eguena, 3



'Didjeridu' | 22:15

Tatuajeen eta piercing-en gainean erreportajea

Didjeridu saioak Aker tatuaje dendako Mireia Rivera arrasatearrarekin izan dira. Lanbide horren gainekoak, jendeak eskatzen duena...

Egubakoitza, 4



'Behazulo' | 21:15

Baserritar gazteekin berbetan 'Behazulo'-n

Baserrien eta euskal nekazal kultu- raren iraupena bermatzeko, gazte nekazariak elkartzen hasiak dira. Oraingo astean elkarteko kideak *Behazulo*-ra gerturatuko dira.

Urriaren 31a: 062 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, urriak 31, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30eara.

Eskaintza:

Harpidetza kuota, 36 euro
2006 bukaerara harte.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.

Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

Sei gonbidapen EIBAR-GIJONGO SPORTING futbol partidua ikusteko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).


- Goretzi Elorza Agirrebarrena (Bergara)
- Josu Barandiaran Oruna (Eskoriatza)
- Jose Arana Balzategi (Arrasate)
- J.M. Ugarte Aiausti (Oñati)
- Francisco Jabier Iturraran Urriaga (Arrasate)
- Amaia Muniategi-Andikoetxea Zubizarreta (Bergara)

Bi gonbidapen Elgetako ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN azaroaren 4an izango den Debajazz musika kontzerturako. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Juan Ignacio Zuazubiskar (Arrasate)
- Uxue Zabaleta Arin (Bergara)

Azaroaren 7ko sariak

- Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko (saridun bakoitzari bi emango zaizkio).



Azaroaren 4an Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango den **DEBAJAZZ** musika kontzerturako 2 gonbidapen.

(Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)





Hamarrekoa

ANDONI ZUBIZARRETA | FUTBOLARI OHIA

"Izan nituen lehen eskularruak amak egin zizkidan, kakorratzarekin"



OIHANA ELORTZA

Oihana Elortza

1. Futbolaren inguruan egiten duzu lan gaur egun ere?

Make A Team izeneko enpresa baten egiten dut lan. Kiroleko balioak, filosofia, enpresa baten nola aplikatu aztertzen dugu.

2. Hortaz, futbola duzu oraindik egunero hizpide. Bai. Lanean nabilean futbolaz hitz egiten dut gehienbat; lagunekin nagoen ere askotan ateratzen dira futbol kontuak. Etxean hitz egiten dugu futbolaz gutxien, baina duela gutxi arte bi ume zaharrenek jokatzeko zitzuzten partiduak ikusten genituen astero.

3. Zer ikusten duzu telebistan? Egia esan, futbol partiduren bat baldin badago saiatzen naiz jartzen, baina ez naiz askorik tematzen. Bestela, CSI telesaila gustatzen zait asko, eta Sin rastro ere ikusten dut. Horrez gain, marrazki bizidunak ikusten ditut, asko.

4. Eskatzen dizkizute sinadurak edo argazkiak oraindik? Ingalaterran, adibidez, bai. Eta baita hemen ere, tarteka. Mutiko gazteek

sarri galdetzen didate, adibidez, ea ni naizen benetan Athleticeko atezaina izandakoa.

5. Nork erosi edo oparitu zizkizun futbolerako lehen botak? Ez dut gogoan, baina ia ziur nago UDA taldeak utzitako botak izango zirela lehenengoak. Lehen eskularruez, ordea, ondo oroitzen naiz: amak egin zizkidan, kakorratzarekin.

6. Zenbatean behin joaten zara zinera? Gutxitan. Film on bat datorrenean saiatzen gara joaten, baina eguna erabaki orduko karteldegitik kentzen dute eta azkenean DVDan ikusten ditugu beti.

7. Eta erosketak egitera? Asko gustatzen zait hori. Lagunek askotan esaten didate nolatan ibiltzen naizen horren gustura erosketak egiten, aspergarria iruditzen zaie eurei. Ni, ordea, gustura ibiltzen naiz, kanpora noanean batez ere.

8. Ehun aldiz baino gehiagotan jokatu duzu Espainiarekin. Makina bat zigilu izango duzu pasaportean, ezta? Bai, eta gordeta ditut, gainera.

Duela zazpi bat urte utzi zion futbolari profesional izateari Andoni Zubizarretak, 16 urtez izan eta gero, baina egun ere futbolaren inguruan egiten du lan. Marrazki bizidunak ikusten ditu telebistan eta kiroleko atala da egunkarian irakurtzen duen lehen-dabiziko gauza. Etxean, Bilbon, irakurriko du elkarrizketa hau, ASTELEHENEKO GOIENKARIAren harpideduna da eta.

9. Zertan ematen zenituen partidua jokatu aurreko eta ondorengo orduak? Kanpora joaten ginenean nobela beltzak eleberririk eramaten nituen. Bestetik, saiatzen nintzen herria ikusten, bisitatzen.

10. Arazorik izan duzu horren altua izateagatik? Ez. Bueno, hegazkinetan leku txikia egoten zen lehen hankak luzatzeko, baina oraingo hegazkinak askoz erosoagoak dira.



Biharamuna

Eñaut Arriaran

Hego haizearen kontraesanak

Hego haizeak, usoak eta birigarroak ekarri ditu ehunka asteburu honetan ere. Mendi eta basoetako postuak ehiztariz lepo egon dira eta gehienek ekarri dituzte txoriak etxeetara. Peri ere disfrutatzen ari dela entzun dut. Egun batean aitarekin eta bestean lagunekin hartzen ei ditu postuak, baina kontua da egunero arnasten duela basoko lehenengo ihintza.

Hego haizea, gainera, ez dakit zer nolako eguraldi fronte kaskar ekartzekoa zen, alerta egoeran jartzeko modukoa akaso. Non galdu ote da bota beharrean dagoen laino sorta? Ez da guztia ematen duen bezalakoa, esaten digutena adinakoa.

Egubakoitzeko Goienkariak ere Madrazoren plan handi horietako bat deskribatzen digu. Hego haizeak bezala, oraingoan etxebizitzaren justizia fronte ezkeriar aurrerakoi bat ekarriko balu bezala, alerta egoeran jartzen nau ni ere. Alerta egoeran, guztia ez delako ematen duen adinakoa. Hego haize honek txoriak hilda ekartzen ditu dagoeneko. Ez dago zertan tirorik bota. Bizigune programaren argiak publikatu dira behin baino gehiagotan, baina oraindik ez ditugu itzalak entzun. Norberak bere burua astindu dezan ideia bakarra botako dut. Bost urterako alokairu babestua sinatzen dute netatik, nik bost pertsona ezagutzen ditut eta guztiak urtebetara euren kabuz utzi diote programan parte hartzei eta batzuek gainera oso haserre. Zergatik ote den, espero dut beraien noiz edo noiz kontatzea.

TELEBISTA IRAULI EGIN DUGU

Etenik gabeko programazioa | Informatiboak orduoro | Programazio berria



Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

Sari hauetakoren bat irabazi nahi duzu?

- Asturias edo Kantabriaren egonaldia: bi lagunendako hiru egun / bi gaueko egonaldia Eroski Bidaia agentziaren eskutik.
- TVC-Berthen telebista: 14 hazbeteko telebista. Arrasateko Hiper Eroskiren eskutik.

GOITBk programazio berria aurkeztu du. Hala, bidali saio berri baten izena -txartela batez edo SMS bat bidaliz-, eta sari hauen zozketan sartuko zara.

Txartel hau moztuta honako helbidera bidali: GOIENA/GOITB • 132 posta-kutxa • 20500 Arrasate

Saio berriaren izena:
Izen-deiturak:
Tel.:
Helbidea:
Herria: Posta-kodea:

Edo SMS bidez: GTB (hutsunea) SAIOA BERRIAREN IZENA 7505 zenbakira.

Baldintzak: Nahi beste txartel edo mezu bidali ahal izango dira. Txartelak jasotzeko azken eguna: azaroak 9. SMSak jasotzeko azken eguna: azaroak 11. Irabazleen izenak azaroaren 14ko Asteleheneko Goienkaria-n kaleratuko dira. Ez dira fotokopiarik onartuko.